

TOKIKOM

2015eko iraila | 151. zenbakia

ai!kor!

erriarriko aldizkaria



Boise, Idaho (AEB)

Zortzigarren
herrialdea





**TXORIERRIKO
UDAL
EUSKALTEGIA**




**2015-16 ikasturtea
Matrikula zabalik**

Herriko Plaza, 3 – 48160 DERIO
Tel. 94 454 00 62
euskaltegia@txorierrri.eu



OAKLAND
ENGLISH

MAILA GUZTIAK


946522857
LEHENDAKARI
LEIZAOLA PLAZA, 2
48170 ZAMUDIO

ikastegi homologatua



**LARRABETZU
MUSIKA ESKOLA**

MATRIKULA ZABALIK



Errebale, 7 behea
94 455 70 66



aek
euskara praktikoa


30 urtean, 50.000
lagunek ikasi dute
euskara gure 100
euskaltegietan

Eman izena

Txorierriko AEK
Hurbiltasuna.
Herrian bertan klaseak hartzeko aukera.
Informa zaitez.
MATRIKULA ZABALIK IRAILAREN 27 arte

**Txepetxa
Euskaltegia**
Gorbea 5 behea, 48160
Derio (Bizkaia)
944 543 967 / 607 598 794
txepetxa@aek.eus

**ARINKA
KASTEGIA**
Goiko kalea, 6 DERIO



LH – DBH – BATX.
INGELES
MARRAZKETA
ERROBOTIKA

TAILERRAK eta
ESKOLA LAGUNTZA

**944 544 753
695 78 77 74**

www.arinkakopidenda.com
arinkaikastegia.blogspot.com



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx eta Altxora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Eder Merino, Sara Gándara, Jon Goikouria Larrabeiti, Gurgide elkartea, Oihane Goienetxe, DerioKOMunikazioa, Fernando de Lera, Alfon Atela, José Ángel Atela, Ainara Arnaiz, Jon Ander Aldekoa, Olaia Aurre, Jose Angel Mentxaka, Oihana Astobieta, Belen Gana eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hezkuntza Politikarako Saltzburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística



BFA Bizkaiko Foru
DFB Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



TXORIERRIKO
MANKOMUNITATEA

diruz lagundutako aldizkaria



12 Vendetta musika taldea



22 TELP tailerra



24 Altxora Eguna

- 4 Eritxiak**
- 5 Laburrak eta albisteak**
- 11 Irudietan... Lagunak bidean**
- 12 Gurean izan da... Vendetta musika taldea**
- 14 Gaztea eta... Amaia Kamiruaga, ikaslea**
- 16 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea**
- 18 Boiseko euskal jaialdia**
- 22 TELP tailerra**
- 24 Altxora Eguna**
- 26 Errobotak ere ikasgeletan**
- 28 Arrate Orueta, Athleticen jokalaria ohia**
- 30 Elkartek... Karraderan**
- 32 Berbalagunen txokoa**
- 34 Baserri mundua... Gurgide**
- 35 Aikorrizketa... Mikel Zarate**
- 36 Sukaldaritza**
- 37 Denborapasa**
- 38 Agenda**

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

aldekone
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Unibte 7, behean
48160 DERIO (Bizkaia)

-Especialitate guztiak
zentro bakar batean
-Aurrekontua doan
-Especialitatea:
umeak

Orratzak eta puxikak

Ez, ez da. Segundoak, egunak, bizitza osoa daramagu barneratuta egon beharko litzatekeen leloa paretetan -norberaren bekokian- letra larritz idazten. Esaten, oihukatzen, negar malkoz bustitzen. Baina itsutasunak eta bekokietako espazio faltak jota, badirudi oraindik ere asko dagoela egiteke, gehiegi agian. Baiezkoak ez ezik, ezetzak ere barneratzeko eta onartzeko gaitasuna dago jorraztear.

Bilboko jaietan gertatutako eta salatutako eraso sexisten inguruan irakurri dugu, arduratu, baita jarri gabeko denuntziei buruz jakin ere. Egia da *matxiruloen* jarrera borborrean dagoela etengabe eta, gainera, alkoholak ematen duen txinpartari eta lagunen babesari esker harrotasunaren puxika egoa beste puzten da. Behin heteropatriarkatuaren morrontzan, ustez, egondako lurraldeen konkistan tinko dihardute. Bakerik ez, jada. Eta orduan, gauaren iluntasunean, "*cho cho*

cho fe para el taxi" lelo zoroen artean, sintomak errazago antzematen dira; *homoe-rectusak* martxan ateratzen dira elkar elikatuz. Inkisizioaren begiradak ernaldu eta heteropatriarkatuak finkatutako bideetatik aldentzen den edozeinengana zuzentzen dira; baina hori ez da okerrera, *desbideratutako* horiek zuzentzeko atrebentzia ere hartzen dute: okel gehiegi erakustearren, debekatutako ezpainetan musu emateagatik... Indioilarraren lumadia erakutsiz eta ahoz esandako lizunkerien ostean, ukimenaren zentzumena dute garatuen, eta esku bat luzatzen dute -bat bakarrik, besteak katxiari eusten baitio- *dagokiena* eskuratu nahian edo, ordea, gaizki eginak zuzentzeko; moraltasunaren maindirea edozein txokotara luzatzeko eta artaldea berriz ere, bateratuta, bidean jartzeko.

Esperotako erantzunik ez jasotzera-koan tolerantziaren diskurtso luze eta gogaikarriaz dira mintzo. Ez, ez dugu



EDER MERINO
(Kazetaria)

tolerantziarik behar zerbait txarto egiten egongo bagina bezala; ez diogu inori ez baimenik ezta barkamenik ere eskatu behar. Hezkuntza eta errespetua dira gizarteak behar duena, ez tolerantzia. Askatasuna, mugak eta eskubideak zeintzuk diren jakiteko errespetua, ezetzak onartzeko hezkuntza... Bideak eta aukeak anitzak direla jakiteko gaitasuna, horiekiko begirunea eta orratz nahikoa, matxismoaren puxika behingoz lehertzeko.

Zeinek esan behar zidan, duela hiru urte, lehorretik uretara egingo nuenik, ordura arte telebistan edo porturen batean (tragoxka eskuan) jarraitzen nuen kirol bat gertutik ezagutzeko. Ezagutzeko, eta horren berri emateko. Telebistan, eta portu askotan (tragoxkarik gabe aurrerantzean). Patuaren apetak. Eta ni, pozik. Pozik, ez nuelako inondik inora espero, eta esperientzia, ezin onuragarria izan dela aitortu behar dut. Agian jende askok ez du ulertuko, baina arraunak zeharo harrapatu nau. Hainbeste, denboraldia bukatzen den bakoitzean egun batzuetako hutsunea ere sentitzen dut. Estropaden ondorengo depresioa izango da. Batek daki.

Berrogei paladatan



SARA GÁNDARA
(Kazetaria)

Egia esan, oroimenerako irudi ugari utzi dizkit kirol honek, kresalaren usaina lagun, udako hilabeteetan. Eta estropada guztien gainetik, bat eta bakarra: Kontxako Bandera. Lan handiko jardunaldiak dira, baina gogoz egiten dituzun horietakoak halaber. Lehia ikusgarria bezain saroa uretan; beste horrenbeste karriketan, hondartzan, mendi magaletan, kai aldean, arranpan... Aldarte ezin hobean milaka zale, nahastuta, egunaz gozatzen. Arraunak hori dauka: zaren taldekoa zarela ere, lehorrean borrokak adiskidantzari uzten dio lekua.

ELORRIETA
INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Uribe kalea, 12 beheko Derio 48160
94 454 03 86

639 57 98 48 - 639 58 25 47

BIZKARGI

TABERNA ETA JAKARIA

Urkiola, 6 DERIO

944541655

ASTIKENEMOTOR

www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781

Ospakizunez betetako urria ekarriko digu Bertokok



Zamudioko elkarteak 20 urte bete ditu eta, urteurrena ospatzeko, ekitaldi sorta zabala antolatu dute urrian zehar. Hala, hilaren 4an, domekan eta eguerdiko 12etan, dantzaldi-erromeria egingo dute Hiru Bat dantza taldearekin eta Aiko taldearekin batera. Txakolina eta kopaua ere eskainiko dira. Urriaren 10ean, zapatua, txotxongilo erraldoiak dantzatzeko ikasteko tailerra egongo da goizeko 12etan; eta Kepa Junkera eta Sorginak taldearen solasaldi-emanaldia, arrastiko 7etan. Ondoren, kalejiran aterako da Maurizia, Leon eta Fasio txotxongiloekin, eta txitxi-burruntzia eta txakolina dastatzeko aukera ere egongo da.

Urriaren 17rako, zapatarako, afaria antolatu dute eta, azaldu dutenez, sor-

presaren bat egongo da. XX. urteurreneko diskoa ere grabatuko dute eta bertan elkartearen ibilbidea erakusten duten zortzi kantu sartuko dituzte. Proiektua Igon Olaguenaga Bertokoko trikiti maisuak zuzenduko du eta elkarteko musikariek batera musikari profesionalak ere arituko dira. Diskoa urriaren 24an grabatuko da.

Bestalde, bideo bi ere egingo dituzte. Bideo bakoitzak 15 minutu iraungo du eta bertan Bertoko elkartearen sortzaileak, irakasleak, gurasoak eta gaur egungo ikasleak zein ikasle ohiak elkarrikizketatuko dituzte, eta jendaurrean zein ikasgela barruan egindako saioak erakutsiko dira. Elkarteak herrian izan duen eragina ere aztertuko da.

Auto klasikoak, Loiun ikusgai

Han auto klasikoak erakusketa egongo da urriaren 4an, goizeko 10etatik aurrera. Ibilgailuak Herriko plazan eta Alonsotegi plazan ipiniko dira ikusgai, eta 11:30ean handik aterako dira Txorierritik buelta bat ematera. Bestalde, 14:00etan kopaua eskainiko da Udalaren eskutik. Auto klasikoak erakusketa Loiun oso harrera ona duen ekintza da eta hara hainbat lagun hurbiltzen dira, herritarrak zein txorierritarrek, baita inguruko herrietako lagunak ere. Iaz, esate baterako, 120 auto egon ziren ikusgai.

Haurreskola zabaldu da Sondikan

Sondikan, jolas eta aisialdirako gune berria dute ikasturte honetan: Txikigunea. Zerbitzu bi eskaintzen dira bertan: haurreskola, zero urte-tik bi urte arteko umetxoak hartzen dituen; eta herriko ume guztiei zuzenduta dagoen balio anitzeko gela bat. Gela horretan jolasgune bi atondu dira: bata, estalia; eta bestea, kanpoaldean. Umeek eta beren familiek haurreskolaren ordutegitik kanpo erabili ahal dituzte jolasguneok. Eraikinak jasangarritasunari dagozkion baldintzak betetzen ditu, eta topagune garrantzitsua bilakatuko da txikientzat. "Eskaintzen dituen zerbitzuak direla-eta, gune hori urte osoan erabili ahal izango da", esan dute Udaletik.


**LIBRERÍA
SONDIKA
LIBURUDENDA**
ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.
JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN
Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
papegintza eta eskulanak
Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)


auzoKide
Finken administratzailea
LORENA GAMBOA AGUIRRE
Txorisolo 4, behea B
48150 SONDIKA
634 410 470
auzokidefincas@gmail.com


Txorierrri
Rocio Astorkia Bordegaray
Kepa Herguedas Manso
María Conde Bilbao
Ainhoa Rodríguez Mella
Mitxine 6, behea - 48150 - Sondika (galtokiaren aurrean)
T.: 944 711 639 - Larrizaldia: 670 885 885 - www.txorierrri.com

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.
Mateo Bidaurrezaga, 1
Tfno: 94 453 33 28 - Fax: 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

Izena ematea, Txuma Olagüe abesbatzan

Txuma Olagüe Sondikako abesbatzan parte hartzeko izena ematea zabaldu da. Abestea gustuko dutenek eta abesbatzako kideekin kantatzera animatzen direnek telefono honetara deitu dezakete: 660048365 (Paula, goizez). Edo, nahiago badute, mezu bat idatzi ahal dute helbide elektroniko honetara: pauperezbuena@yahoo.es. Entseguak Santa Kurtzeako ermitan egingo dira, Sondikan.

Derioko dendak, kalera

Danerik Paraje! Derioko Zerbitzu eta Merkataritzako Elkarte Profesionalki outlet-a antolatuta du urriaren 2 eta 3rako. Dendariek Sollube kalean ipiniko dituzte salto-kiak, eta hara udako denboraldiko salgaiak edo stockeko gauzak eramango dira. Aukera ona izango da dendariek eskaintzen dizkiguten beherapenez eta eskaintzez baliatzeko. "Egia esan, jendea hurbiltzen da outlet-era, eta esperientzia ona izaten da urterik urte. Gainera, bari-kuan eta zapatuan antolatzeak aukera handiagoa ekartzen digu guri zein bezeroei" esan digute elkartetik.

Bilerara deitu du Gorantzaileak-k

Sondikako taldeak bere 50. urteurrena ospatuko du datorren urtean. Urteurrenaren haritik bilera bat antolatu du urriaren 15erako, eta herriko taldeak, dantzariak eta ospakizun-ekitaldietan parte hartu nahi dituzten herritar guztiak deitu dituzte bilera horretara. Iluntzeko 8,30ean egingo da bilera, dantza taldearen lokalean.

San Migel, gelditu barik

Lauroeta Loiuko auzoan eta San Migel Derioko auzoan jaietan daude, San Migel ospatzen hain zuzen ere. Auzo bietan ekitaldi sorta zabala egon da asteburu osoan zehar, baina oraindik ere makina bat aukera dugu disfrutatzen jarraitzeko. Jai-batzordeek hurrengo ekitaldiak antolatu dituzte datozen egunetarako. Elexeta Larrabetzuko auzoan ere San Migel ospatuko dute irailaren 29an eta urriaren 4an. Domekan autobus bat ipini-ko da hara joateko eta izena ematea Udaletxean edo Anguleri kultur etxean egin daiteke irailaren 30era arte. Besteak beste, paella jana egongo da bertan.

Derio

Irailak 29, martitzena

-18:00: Dj Xaibor.

Urriak 2, barikua

-20:00: Txorizoa sagardo erara dastatzea.

-00:00: Kontzertuak: Boikot + Itziarren semeak.

-04:00: Diskoteka.

Urriak 3, zapatua

-10:30: "Julio Garitano" XII. Areto-futbol Txapelketa.

-14:00: Indaba jana.

-15:00: Azken buruko sorpresa.

-16:00: Bazkalondoa eta bingo berezia.

-20:30: Umeen moztar txapelketa.

-21:00: Nagusien moztar txapelketa.

-00:00: Berbena, Honat taldearekin.

-04:00: Diskoteka.

Urriak 4, domeka

-10:00: Traka.

-13:00: Umeentzako ikuskizuna.

-15:30: Jai-batzordearen bazkaria.

-17:00: Dantzen alardea, Lainomendi taldearen eskutik.

-18:30: Konpartsen arteko jolasak.

-20:30: Sariak ematea.

-21:00: Txokolatada.

-21:30: Diskofesta.

-23:00: Txupina eta jaien amaiera.



Ametz Arzallus. a: Bertsozale elkarteak

Lauroeta

Irailak 29, martitzena

-10:30: Kalejira.

-12:00: Meza.

-13:00: Txosna zabaltzea.

-13:00: Briska txapelketa eta igel-toka.

-Egurdian zehar, poteoa eta pintxoak.

-19:00: Asto probak.

-20:30: Bertsolariak.

-21:00: Ahuntza zozketatzea.

-21:30: Erromeria.

-22:00: Jaien amaiera eta txokolatada.

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

CAFE-BAR
BIDE-GORRI

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WiFi gunea

ERREKA
ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta,
enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

Garmendia
ardoak

Piñoa pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49



Nekazaritza azokak

Lezaman, "Denon artean" azoka egingo da lehenengo aldiz; eta Loiun euskal baserriko oilasko-pintxoak eskainiko dira

a: Loiuko Udala

Lezamako Nekazaritza Azokak berri-kuntza bi ekarriko ditu aurten. Alde batetik, azoka domekatik zapatuta aldatu da, urriaren 17ra hain zuzen ere, eta bestetik, izen berria ere edukiko du: Denon Artean. Izan ere, azoka Udala eta Saretzen elkartearen artean antolatuta da aurten. Elkarrekin horretan herriko ostalariak, merkatariek eta enpresariak daude batuta.

Nekazaritza azoka 11:00etatik 15:00etara egongo da zabalik, eta, betiko moduan, produktu sorta zabala ipiniko da ikusgai eta erosgai: ortuariak, fruta, ogia, gazta... Era berean, erakusketak eta erakustaldiak egongo dira: bizikletak, argazkiak, barazki kontserbak... Eguerdian, herri bazkaria izango da, eta hainbat ekintza arratsaldean: tailerrak, kale antzerkia eta ipuin kontalariak, haien artean. Iluntzean, berbena bat egongo da. Beraz, azokaren forma-

tua ere aldatuko da eta hemendik aurrera egun osoa iraungo du, herritarrei eta bisitariei aukera gehiago eskainiz.

Bestalde, Loiuko Gastronomia eta Eskulangintza Azokak 23. edizioa beteko du aurten. Urriaren 18an, domekan, egingo da, eta, ohikoa den bezala, salmenta-postuak Herriko plazan, Alonsotegi plazan eta frontoian ipiniko dira. Bertara baserriko produkturik onenak eramango dira, eta artisauen lanak ikusi eta erosteko aukera ere egongo da. Azokari 10:00etan emango zaio hasiera, eta 12:00etan Bizkaiko txakolina eta euskal baserriko oilaskoa dastatu ahalko da. Herri kirolek ere beren lekua edukiko dute azokan, 13:00etan erakustaldi bat egingo da-eta. Azkenik, 15:00etatik aurrera Erromeria egongo da Akerbeltz taldearekin. Loiuko azoka beterranoa da eta urterik urte jendetza batzen da bertan. Urriko hirugarren asteburuan, beraz, hitzordu garrantzitsu bi edukiko ditugu nekazaritza munduarekin.

Lezamako eskultore bat lanean ariutako da Amerikan

Jesus Jauregik lan garrantzitsu buri ekingo die. Lehenengoa Kalifornia Behean, Mexikon, egingo du; Los Cabos udalerrian. Bertan, hotel bat altxatuko du Ritz Carlton firmak, eta eraikinak kristalezko kubo handi bat edukiko du aurrealdean. Kristalezko kubo horretan Corten altzairuzko estruktura eskultorikoak ipiniko dira, lezamarrak egingo dituenak. Gainera, estruktura horiek firmaren identitate-ikur bihurtuko dira eta hoteleko beste leku batzuetan ere ipiniko dira, hala nola suiteetako ateetan eta jatetxe-ko barran. "Azala bat izango da, multzo arkitektonikoaren zehar agertu eta desagertuko dena".

Bestalde, bigarren lana Guatemalako hiriburuan, Tegucigalpan, egingo du. Han 24.000 metro koadroko multzo arkitektoniko bat eraikiko da eta lezamarrak eraikineko fatxadetan ipiniko den saretako eskultorikoa diseinatuko du. "Hamalau metroko garaiera eta 57 metroko zabalera dituzten saretak izango dira. Eta lan honetarako, banbua erabiltzeko aukera aztertzen nabil, eta horrela ekologia eta jasangarritasunaren aldeko apustua egin".

Berton lan gutxi dago eta Jesus oso pozik dago Amerikan irten zaizkion aukerekin. "Asmo handiko proiektuak dira biak. Gainera, Ritz Carlton firmak zure lana aintzat hartzea oso inportantea da; baita euskal arterako ere".



Inprimatu zure posterra
airetik ateratako Bizkaiko argazki onenekin
Pilo bat daukazu aukeratzeko

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

www.bizkaiadesdeelaire.com

Sar zaitez zure argazki onenekin

Eguzkine, Boiseko Miguel Aiarzaga...

9,32€
-tik hasita
80.2. berrit



Ondarearen jardunaldiak

Aurtengo gaia "Burdina" da eta Larrabetzun bisita gidatua antolatuko dute Goikoleako burdinolara urriaren 10erako. Ostean, herrian egon diren burdinolen argazkiak proiektatuko dira Anguleri kultura-etxean eta haiei buruzko azalpenak emanango dira bertan. Izena emateko, telefono zenbaki honetara deitu behar da: 94 455 82 71.

Lezaman ere bat egin dute jardunaldiekin. Hala, urriaren 17an, zapatuan, bisita gidatua egingo dute Kurtzeko ermitara eta Olazarra burdinola-errotara. Azaldu digutenez, ermitako burdinazko hesia Olazarra burdinolan egin omen zuten. Ekintzan parte hartzeko, 94 455 61 26 telefono zenbakira deitu behar da.

Derion, "Burdina gure artean eta kirolean" bisita gidatua eta erakusketa egingo dute urriaren 18an, goizeko 12etan. Urriaren 22an "Lezama trenbide zaharra eta Hilentrena" hitzaldia emango du Juanjo Olaizolak. Azkenik, urriaren 25erako "Burdina Bilboko hilerrian" bisita gidatua antolatu dute. Hilerriko sarreran lotuko dira goizeko 11etan.

4.500 euro batu dira Larrondoko jaialdian

Danontzat Loiuko elkarteak jai solidarioa egin du lehendabiziko aldiz irailean, Larrondo auzoan, hango jai-batzordeko kideen laguntzarekin. Ekitaldian 4.500 euro inguru batu ziren eta dirua Friedreich-en ataxia gaixotasuna ikertzera bideratuko da, Sondikan gaixotasun hori duen lagun bat dago-eta.

Antolatzaileak poz-pez agertu dira jaialdiarekin. "Harrituta gaude parte-hartzaileen kopuruarekin. Ez genuen espero hainbeste jende etortzea, baina eguraldi ona egin du eta horrek lagundu egin digu. Guztira, ia 300 lagun batu ginen bazkarian. Hasieran, apur bat urduri ibili ginen, ez genekielako janari nahikorik egongo zen eta, badaezpada, makarroiak egin genituen. Eta hala moldatu ginen. Jaialdia erabat arrakastatsua izan da". Egun osoan zehar, hainbat ekitaldi egon ziren, hala nola, umeentzako jolasak, dantzak, kirola, sardina jana eta kontzertuak.

Lanbideren bulego mugikorra

Azaldu dutenez, Lanbideren zerbitzuak, ekintzak eta enplegu politikak txorieritarroei hurbiltzea da bulego mugikorraren helburua. Zerbitzu publikoa da, elebiduna, doakoa eta pertsonalizatua, eta haren bidez erraztu nahi da herritarrek lan merkatuan sartzea. Horrela, bada, zerbitzu mota bi eskaintzen dira bertan: alde batetik, enplegu zentroa (prestakuntza, enplegu eta autoenplegurako informazioa, CVA egitea, enplegu webguneak ikustea, enplegua bilatzeko baliabideak...); eta bestetik, orientazioa (curriculum eta aurkezpen gutuna, hautaketa frogak, lan elkarrikeria, IKT eta enplegua bilatzea, trebetasun sozialak...).

Zerbitzua abenduaren 31ra arte eskainiko da, eta haren arrakasta aztertu ostean erabakiko da datorren urtean ere jarriko ote den martxan. Bulego mugiko-

rra hamabost egunetik hamabost egunera ipiniko da herri bakoitzean. Urriko hitzorduak hauek dira:

Loiu: urriaren 2an, 16an eta 30ean, barikuan, 15:00 – 17:00, Udaletxeko plaza.

Sondika: urriaren 2an, 16an eta 30ean, barikuan, 09:00 – 13:00, Goiri Erdikoa kalean.


Derio: urriaren 9an eta 23an, barikuan, 09:00 – 13:00, Sollube kalean.

Zamudio: urriaren 14an eta 28an, eguaztenean, 09:00 – 13:00, Udaletxeko plaza.

Lezama: urriaren 14an eta 28an, eguaztenean, 15:00 – 17:00, Udaletxeko plaza.

Larrabetzu: urriaren 9an eta 23an, barikuan, 15:00 – 17:00, Udaletxeko plaza.

URRUTIKO PAISAIEN BEGIRALEA.– Altzora Sondikako euskara elkarteak argazki lehiaketa antolatu zuen eta "udako oporrak" izan zen gaia. Aritz Atela Ayok irabazi du lehiaketa. Kroazian ateratako argazkia aurkeztu zuen lehiaketara. Guztira, 52 argazki jaso zituen elkarteak.



Scalextric erraldoia eta elurtua ipiniko dute Zamudion



Zamudio Racing elkarteak Scalextric pista erraldoi bat jarriko du Zamudioko frontoian, urriaren 17an eta 18an. Txorierriko lagunek Euskalextric-AESK Zornotzako elkartearen laguntza izango dute. "Ekintza bat egiten dugun bakoitzean, scalextric pista bat jartzen dugu, hau da, elektrizitatearen bidez ibiltzen den miniaturazko autoak, eta ikusi dugu zaleatasuna gero eta handiago dela. Era berean, Euskalextric elkarteok txapelketak eta antolatzen dituzte eta elkarrekin lan egitea erabaki genuen", esan dute Racing elkarteok. Zamudioko zirkuitua sei zatitan banatuko dute, eta horiek bereziak izango dira. Izan ere, antolatzaileek

Finlandia edo Norvegiako landetako baldintzak irudikatu nahi dituzte, eta horretarako, elurrik ezean, irina-eta erabiliko dute.

Auto txikiak nagusi izango dira frontoian asteburu osoan zehar. Larunbatean, txapelketa egingo dute. "Normalean 20ren bat lagunek hartzen dute parte halako txapelketan, baina gurean dagoe-neko 40 pertsonak baino gehiagok eman dute izena. Harrigarria da". Hurrengo egunean, igandean, ate irekien jardunaldia izango da, eta edozein zaletuk izango du bertan jolasteko aukera. Batean zein bestean parte hartzeko, ez da ezer ordaindu behar izango.

300 korrikalaritik gora, Kepa eta Arenen lasterketan

Derioko neba-arreben oroime-
nezko lasterketa Gure Señeak elkar-
teak antolatzen du eta aurten bos-
garren aldiz egin da irailaren 13an.
Lasterketan 310 korrikari baino
gehiagok hartu zuten parte 11 kate-
goriatan banatuta: umeak, kimuak,
promesak, beteranoak eta egokitu-
tako kirola, tartean. Lasterketa
hitzordu garrantzitsua bihurtu da
eta elkartetik adierazi digute haien-
tzat oso hunkigarria dela lasterketa
bera, eta haren inguruan hainbeste
jende batzea. Izan ere, ekitaldian
Kepa eta Arene neba-arrebak gogo-
ra ekartzen dituzte, eta era berean,
herritarrek gaixotasun arraroa edo
ezintasun berezia duten umeen eta
haien familien egoerarekiko sentikor
bihurtu nahi dituzte. Aurtengo las-
terketaren bideoa YouTubean dago
ikusgai: GureSeñeak_2015 - V
Memorial Kepa eta Arene.



a: DerioKOMunikazioa

BOLALEKU JATETXEA
10. URTEJORDIA

Gardetza, 1 - LEZAMA
94 455 41 10
Jantzu Facebook

- Hainbat menu
- Karta
- Ospakizunak
- BOLAPARK

LEJARRENE JATETXEA
Garnietza auzoa, 12 • LEZAMA • T: 94 455 65 46

48196 LEZAMA Biskaiak
Gardetza auzoa, 36

S.A.T. LECU
SERVICIOS DE LIMPIEZA Y MANTENIMIENTO

Tf: 94 455 64 57
Tf: 94 455 61 98

Club Hípico Aretxalde

Pony club • Zaldiketa ikastaroak
Aisialdirako landak • Apopilo zerbitzua
Sahio • Txangoak • Animalien heziketa

Telefonoa:
IBON - 659 90 75 88
Aretxalde auzoa, 89 • 48196 LEZAMA

KIMA Landarak
LANDARE APAINGARRIA

Gardetza 59 • Tel: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (BIZKAIA)

Reformas Rivero
Especialitateak: Igeltzerotza eta pintura

Konpromisorik gabe aurrekontuak
Azkarrek, garbiak eta merkeak

R

t: 603 109 852
luis_alberto_rivero_1984@live.com



Derioko puntu beltzak aztertuta

a: Oihane Goienetxe, DerioKOMunikazioa

Lanak emakumeek udalerrian zer arrisku ikusten dituzten jakitea eduki du helburu, baita lasai mugitzea eragozten dizkieten oztopoak identifikatzea ere. Horretarako, profil eta ohitura ezberdinak dituzten 10 emakume batu, eta lantaldea osatu zen. Emakume horien artean, neska gazte bi, zaintzaile bat, etxetik kanpo lan egiten duen ama bat, Sutondoan elkartearen presidentea eta Mankomunitateko Berdintasunerako teknikaria egon dira. Emakumeek arriskutsuak izan daitezkeen 16 leku identifikatu dituzte, eta arazo gehienak argi faltari egon dira lotuta.

Lantaldearen arabera, leku hauek ez dira batere seguruak gaez: Euskal Herria kaleko 4. eta 6. atarien artean dagoen lorategia, Larrabiko atzeko aldea, Urbasa gunea, Uribe parkea, Bakearen plazako arkupeak, Goiko kalea, Txosna parkea, Gaztelumendi plazako parkea, Butroi kaleko 5. eta 7. atarien arteko gunea eta Hariztiko pasabidea, Mungialde etorbiderantz. Leku arriskutsu horiek identifikatzeaz gainera, konponbideak ere proposatu dituzte, hala nola kale-argi gehiago ipintzea edo ondo ikustea zail bihurtzen duten landareak-eta moztea. Lupeko pasabideak eta tunelak ez dira, normalean, leku seguruak izaten. Emakumeen ustez, argiztatze nahikoa dago autopistako tunelean eta tren-geltokiko pasabidean; hala ere, aipatu dute autopistako tunelaren amaieran, eskuinaldean, bide bat dagoela eta ezin dela ikusi bertan

Hamar emakumek osatutako lantaldea Derioko kaleetan zehar ibili da bi hilabetez, herriko hirigintza genero ikuspuntutik aztertzeko. Ekintza Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Derioko II. Planaren haritik egin da, eta alderdi bi hartu dira kontuan: segurtasuna eta irisgarritasuna.

inor ezkutatuta dagoen. Konponbide bezala, ispilu bat ipintzeko eskatu dute, izkina horretara ailegatu baino lehen, bidearen amaiera ikusi ahal izateko eta beste aldean norbait dagoen ikusteko.

Bestetik, irisgarritasun arloan arazoak topatu dituzte leku hauetan: Udaletxe ondoko haur-parkea, tren-geltokiko tunela, Urbasa gunea, Gaztelumendi plazako parkea, Mungialde etorbideko 16. atariaren ingurua eta San Isidro bidea.

Pintaketa iraingarriak

Beste proposamen batzuen artean, Urbasa guneko espaloia konpontzeko lanak egin beharko liratekeela esan dute. Izan ere, zuhaitzen sustraiak gorantz igo dira eta espaloia desitxuratu dute. Ondorioz, oso zaila da bertatik haur-aulki edo gurgil-aulki batekin pasatzea. Era berean, San Isidro bidean landaretza era egoki batean hazten dela kontrolatu beharko litzatekeela esan dute, landareek bidea ez estaltzeko, eta Mungialde etorbideko 16. atariaren inguruan pibote batzuk ipini ahal liratekeela, autoek gajeetako sarreretan buelta ez emateko. Azkenik, uste dute lehentasuna eman be-

harko litzaiokeela pintaketa iraingarriak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aurkako eraso zuzenak direnak, garbitzeari.

Maider Aritz Gorroño Martinek, Mankomunitateko Berdintasunerako teknikaria, aipatu digun bezala, diagnostikoak harrera ona izan du Derioko bulego teknikoan eta hasi da neurriak hartzen. Adibidez, argiak ipini dira Hariztiko pasabidean, eta piboteak Mungialde etorbideko 16. atariaren inguruan. Diagnostikoa Derioko webgunean jarriko da eskuragarri, eta ale batzuk utziko dira liburutegian.

Helburu nagusiaz gainera, proiektuak beste helburu batzuk ere lortu ditu, hala nola emakumeak eremu publikoaren erabiltzaile aditutzat hartzea, eta emakumeak ahulduntzea eta animatzea, herriaren erabakietan parte har dezaten. "Garrantzitsuena emakumeak protagonista bihurtzea da, eta haiei hitza ematea, beren bizitza hobetzeko neurriak hartzeko orduan". Gorroñoren esanetan, Zamudiok eta Larrabatzuk ere jorratu dute hirigintza genero ikuspuntutik, eta gainontzeko herriek laster egiteko asmoa dute.



Lagunak bidean

Arraroa da Txorierrin atzeritarrik ez ikustea, batez ere Larrabetzu eta Zamudio bitartean. Chris Aschke (Alemania), Tomas Salvador (Portugal), Kristy Bates (Colorado, AEB) eta Ida Nordin (Suezia) ezezagunak ziren Done Jakue bidea hasi baino lehen. Bideak elkartu zituen. Zamudioko Udaletxeko plazara heldu orduko, euren esperientziak elkartrukatzeko ari ziren Lezama-Bilbo bitarteko etapan.

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti
www.atomikastudio.com



lezama
consultorio veterinario
albaitaritza klinika
www.consultorioveterinariolezama.com

J.R. Galdona Madariaga
BI-515



Medikuntza orokorra
Txertaketak
Parasitoak hil
Mikrotxipa
Kirurgia
EKG
Analisiak
Ospitalizazioa
Ekografiak

94 455 56 19 Aretxalde, 21bis • 48196 Lezama



bai
euskarari

Bai Euskarari Zurtagiria,
4000 euskarazkoen
inbentarioa argitaratu da

zurtagiriarenbaita.com
baita.org

urrats biziak

[@baitaorg](https://twitter.com/baitaorg) [baitaorg](https://www.facebook.com/baitaorg) [www.baitaorg.org](https://www.youtube.com/baitaorg)



"Ez dago sekretu berezirik, lan p



t: Itxaso Marina

Zelan tratatzen zaituztegu txorieritarrok?

Askotan ibili gara hemendik, eta normalean giro paregabea topatu dugu kontzertuetan. Egia esateko, azkenaldi honetan gainezka egon diren plazetan ibili gara. Ezin gara kexatu.

Zelako uda izan duzue?

Diskoa abenduan irten zenetik ez gara gelditu. Suitzan lau kontzertuko bira egin genuen, eta ondoren Estatu mailako areto-bira. Udan ere kontzertu dezente eman ditugu, jendetsuak eta girotsuak. Oso pozik gaude.

Eta zelan datoz hurrengo hilabeteak?

Zenbait herritako jaiak gelditzen zaizkigu oraindik, eta gero, urriaren bukaran, Suitzara itzuliko gara hiru kontzertu ematera. Ostean, bira biribiltzeko, areto txiki batzuetan joko dugu, eta azken kontzertua Iruñeko Zentral aretoan emango dugu abenduaren 11n.

ENRIKKO RUBIÑOS | Vendetta taldeko bateria-jotzailea

Vendetta taldea ekainean egon zen Loian, eta irailean ere eskaini du kontzertua Lezamako jaietan. Hala ere, ez da lehenengo aldia Txorierri taldearen skaz gozatzeko aukera izan duguna. Enrikkok gure galderak entzun eta taldearen asmoak aurreratu dizkigu.

Europara ez ezik Latinoamerikara ere eraman zaituztete birek. Zelako harrera duzue han?

Harrera ezin hobea izan dugu egindako irteera guztietan, eta giro paregabea sortu da kontzertuetan.

Zuk esan duzu lehen: gainezka dauden plazetan zabiltzate. Zein da sekretua?

Nire ustez, ez dago sekretu berezirik, lan piloa baizik. Zortzi urte daramatzagu taldearekin, etengabe lanean, konposatzen, grabatzen, gizarte sareetan egurra ematen, elkarriketak egiten, bideoklipak

grabatzen... Lanaren eta arduraren emaitza da.

Taldea sortu zenutenean, ez dakigu epe luzeko proiektua izango zen pentsatu zenuten; zelan ikusten duzue orain taldearen etorkizuna?

Oraingoz, Vendetta aurrera doan tren bat da. Buruan baditugu ideia batzuk datorren birarako, baita datorren diskorako ere. Beraz, aurrera. Dena dela, ez dugu epe luzeko etorkizunean asko pentsatzen.

Zortzi urte, lau disko.

Disko guztiak entzun eta argi nabaritzen da bilakaera handia izan duela talde-

ilo baizik”

Jai-kutsua

Skalariak taldean 10 urte eman ondoren, Javier Etxebarriak (gitarra-jotzailea) eta Luisillo Kalandrakak (baxu-jotzailea) Vendetta taldea sortu zuten 2007. urtean. Proiektuarekin bat egin zuten Pello Reparazek (tronboi-jotzailea), Ruben Antonek (trontpetu-jotzailea) eta Enrikko Rubiñosek (bateria-jotzailea). Taldeari jai-kutsua eman zioten hasieratik, eta ska oinarritzat hartuta, beste estilo batzuen fusioarekin ausartu dira, hala nola funka, folk zelta eta country-a. Zortzi urtean lau lan kaleratu dituzte: *Vendetta* (2009), *Puro infierno* (2011), *Fuimos, somos y seremos* (2012) eta *13 balas* (2014). Enrikkok aurreratu digun moduan, dagoeneko hasi dira beren hurrengo diskoan lanean.

ak, betiere Ska oinarritzat izanda. Estilo ezberdinekin nahastu eta fusionatu dugu ska. Festarako eta dantzarako pentsatuta dauden abestiak dira uztartze horren emaitza. Hala ere, esan genezake abesti batzuk dantzekoak baino gehiago, kanta-tzekoak direla.

Festa-kutsua, baina aldarrikapena ere bai.

Aldarrikapena beti egon da Vendetta-ren diskoetan eta zuzenekoetan. Kultura munduan gabiltzanok, orokorrean, eta zehazki musikariok, bide ezin hobea dugu jendearen kontzientzia astintzeko, jendea burua erabiltzera bultzatzeko. Alde batera edo bestera, baina erabil dezatela burua. Gizartearekin kritikoak izateko, dituzten arazoei aurre egiteko, bizi garen mundu hau hobetzen saiatzeko... Hori guztia astintzen saiatzen gara gu; hori da, nire ustez, gure betebeharreko bat.

Oso talde kohesionatua osatzen duzue, antza. Ezinbestekoa, musika munduan irauteko.

Halako taldea da gurea, bai. Etxekoak baino gehiago ikusten ditut nik lau horiek... Baditugu geure liskarrak, nola ez!, baina nik beti esaten dudan moduan, oso ondo dakigu eztabaidatzen! (kar, kar).

Euskara eta gaztelania.

Abesti gehienak pertsona bik idazten dituzte, etxean eta bakarka. Batek euskaraz daki; besteak, ez. Beraz, Vendettan modu naturalean suertatzen den gauza da hizkuntza biak nahastea.

Zuen webgunetik lau diskoak deskarga daitezke, eta sakelako telefonorako aplikazioa ere egin duzue. Detalle handia zaleekin. Hala ere, kontraesanak dela pentsa daitezke...

Mugak hautsi nahi genituen; muga ekonomikoak nahiz fisikoak. Ez genuen nahi diskoak balio duen 14 euroko prezioa edo, esaterako, Mexikokoa izatea oztupo bat izatea. Gainera, gaur egun edozein disko jaitxi dezakezu lau klik eginda. Beraz, guk klik pare batean utzi dugu kontu hori. Eta salmentei dagokienaz, azken diskoa, aurrekoarekin alderatuta, antzeko saldu dela esan dezakegu, edo gehiago. Dena dela, AC/DC bai, beharbada, baina Vendetta ez da bizi saldu-tako diskoetatik, ezta hurrik eman ere.

Zein proiektu duzue epe labur edo luzerako? Disko berria aipatu duzu lehen...

Bideoklip berria aterako dugu laster, eta bira berria prestatzeko ere ekingo dugu. Eta bai, disko berrian ere bagabiltza lanean... Hau ez da gelditzen, ez! (kar, kar).

“Kulturan gabiltzanok bide ezin hobea dugu jendearen kontzientzia astintzeko, eta hori da gure betebeharreko bat”

“Diskoak gure webgunetik deskarga daitezke; muga ekonomikoak nahiz fisikoak hautsi nahi ditugu”

GORBEIA MERTZERIA



Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06

PATXI KOOP



FACEO KOOPERATIBA ELKARTEA
Nabizteko gunea | Euzkadi 4, 48170 Zamudio (Bizkaia) | Tel: 94 452 3377 | info@paxi.coop | www.paxi.coop

Peñasko arraindegia



Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

HAUR-MODA Tximeleta



Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35

TRIPPY TABERNA



Espezialitatea:
GIN TONIC

Behoko kalea - DERIO

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku



Zainduz Benmak
Logopedia
Podología
Kiropraxia

clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika

Txanem etorbidea, 8 - Lortza | Arteaga eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentazainduz.com | www.dentazainduz.com

Libre, New Yorkeko kaleetan

AMAIA KAMIRUAGA | ikaslea

Testu hau orain irakurriko duzuen arren, Amaia uztailean harrapatu genuen, "Sagar Handitik" etorri berria zela. Gazte sondikoztarra ikasten egon da bertan, eta *jet lag*-a ez da oztopoa izan, bere esperientzia gurekin partekatze-ko.

t: Itxaso Marina

"Ikastetxeko neska batzuk Estatu Batuetara joan ziren ikastera aurreko ikasturtean, eta euren esperientzia kontatu ziguten. Ni ere animatu nintzen esperientzia hori bizitzera. Gainera, ikusi nahi nuen noraino heltzeko gauza nintzen... New Yorken urte oso bat egon naiz, eta oso esperientzia ona izan da". Hala hasi da Amaia azaltzen zergatik erabaki zuen Atlantikoaz beste aldera joatea.

Batxilergoko lehenengo maila ikasi du New Yorken. "Sistema ezberdina daukate, jende ezberdinekin egon naiz klase bakoitzean... baina maila baxuagoa dute, eta oso erraza izan da bertan ikastea. Egia esateko, ez dut esfortzu handirik egin, hemen egin beharrekoarekin alderatzen badugu... Zailtasunak orain etorriko dira, liburuak hartu eta berriro gogotik ikasi behar dudanean. Uste dut kostatuko zaidala". Ikasketez gainera, kirolarekin ere saiatu da New Yorken. "Saskibaloian eta hockeyan aritu naiz, izan ere, halako kiroletan aritzeko gomendioa ematen dute, jende gehiago ezagutzeko eta haiekin harremanetan hasteko. Saskibaloian lehenago ere aritu naiz, baina hockeya berria izan da niretzat. Probatzearen aukeratu nuen. Oso txarra naizen arren, gustatu egin zait".

"Zailtasunak orain etorriko dira, liburuak hartu eta berriro gogotik ikasi behar dudanean"

Hizkuntzari dagokionez praktikarik ezak hasieran dakartzan arazoak gaindita, sondikoztarrak ez du arazo handirik izan Amerikako bizitzara egokitze-ko. "Kostatzen zaizu, noski, hizkuntza ezagutzen baduzu ere, hasieran zaila delako buruan duzuna ahoz adieraztea. Baina egunero saiatu behar duzu ingelesez, eta azkenean nahi eta nahi ez egiten duzu. Bestalde, kultura ezberdina duen herrialde batean zaude, zuk ezagutzen ez duzun eta zu ezagutzen ez zaituen familia batekin... eta gogor egiten da. Baina zailtasun horiek gainditzen dira, eta familiako beste kide bat bihurtzen zara azkenean. Oporretara joaten ginen eta gauza asko egiten genituen elkarrekin". Hala ere, Amaiak aitortu digu apur bat kostatu zitzaiola familian zeukan "estatus" berrira moldatzea. "Neba bat daukat, ni baino nagusiagoa dena; eta New Yorken nire adineko ahizpa bat izan nuen. Beti geunden elkarrekin,



gauza berdina egiten genituen eskolan, lagun berberekin irteten ginen... eta, ondorioz, erraza zen elkarrekin haserretzea. Ez nuen oso ondo eramaten".

Magikoa

New Yorken, neguan, hotz handia egiten duela kontatu digu, eta horregatik, aisialdia etxean eman ohi zuen, pelikula ikusten edo Gabonetako postreak egiten. "Eguraldia hobea zenean, men- dira joatea gustatzen zitzaidan, eta familiarekin bidaiak egitea autoz. Countrya entzuten genuen bidaia horietan. La-

Idazle afizionatua

Sondikoztarrak Txorierriko Ipuin Lehiaketaren azken edizioa irabazi du. Eta ez da lehenengo aldia izan, orain dela urte batzuk ere lehenengo saria eskuratu zuelako bere kategorian. Istoria kontzentrazio-esparru batean kokatu du oraingo honetan. "Il. Mundu Gerra ikasi genuen ikastetxean, eta irakasleak hari buruzko lan bat egitea agindu zigun. Esan zidan nirea ondo zegoela eta, beharbada, lehiaketaren batera bidali ahal nuela. Badakit oso gai originala ez dela, hari buruz asko

idatzi dela, baina uste dut inportante- ena dela zelan dagoen idatzita. Estatu Batuetan nengoela enteratu nintzen irabazi nuela. Pozik".

Idaztea gustukoa du betidanik, "eta are gehiago euskaraz, politagoa delako". Idaztea bere sentimenduak adierazteko erabiltzen du, eta hobeto sentitzeko. Hala ere, ez du idazle bihurtzeko aukera inoiz aztertu. "Ez dakit nik horretarako hain ona izango nintzatekeen...". Bere zaletasunetako bat izaten jarraituko duela ziurtatu digu, ordea. Eta zer espero du Amaiak bizitzatik? "Askok bidaiatu nahiko nuke, lan on bat izan, familiarekin egon..."



gunekin janari lasterreko jatetxeetara ere joaten nintzen autoz, ezin delako leku batetik bestera oinez joan. Ez da beharrezkoa esatea Sondikak ez daukala zerikusirik "Sagar Handiarekin". New Yorke 19 milioi biztanle dauzka, oso erritmo bizkorra, kultura eta aisialdiko eskaintza handia... Egunez zein gauez. Lo egiten ez duen hiria dela diote. "New York nahiago dut; hango erritmoa da niri gustatzen zaidana. Asko gozatu dut izotz gainean patinatzen, New Yorkeko kaleetan barrena ibiltzen... Izan ere, nahiz eta gauza sinplea iruditu, hain da magikoa! Libre sentitu naiz hain akigarria irudi dai-

tekeen hiri horretan. Inoiz han bizi ahal izatea da nire ametsa".

Lagun onak egin ditu Estatu Batuetan. "Kultura eta ohitura ezberdinetatik gatoz eta hori nabaritzen da, jakina, baina elkar ulertzen dugu. Oso jatorrak dira. Ikastolan bazegoen Holandako neska bat eta, beharbada, bera zen ondoen ulertzen ninduenen –badakizue, hasieran apur bat galduta zabilta, bakarrik sentitzen zara, ez dakizu zeure arazoak nori kontatu...– egoera berean geundelako". Orokorrean, oso esperientzia positiboa izan dela dio, eta edonori gomendatuko lioke halako abentura bat bizitzea. "Zure

familia ondoan ez egoten ikasi behar duzu, beste kultura batera egokitzen, ikastetxean gauzak ondo egiten... Gauzak beste perspektiba batetik ikusten dituzu".

Amia Batxilergoko bigarren mailako ikaslea da Lauroeta ikastetxean. Hautazko ikasgaitzat zuzenbidea eta ekonomia aukeratu ditu, gustatzen bazaio, esparru horiei lotutako zerbait ikasteko asmoa duelako. Beharbada; batek daki. "Estatu Batuetako esperientzia oso ondo irten dela kontuan hartuta, gustatuko litzaidake berriro atzerrira joatea ikastera. Ez dakit nora, Europako herri batera, nire familiarengandik hain urrun ez egoteko".



Untragi Ibaia Kalea, 1
48160 - DEFO
Tel.: 94 403 40 60
Fax: 94 403 40 61
info@txorierri.net
www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea



ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAKO BATXILERGOAK

LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- * Mekanizazio teknika
Erdi mailako zikloa (2 ordu)
- * Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi-mailako teknika
Goi-mailako zikloa (2 ordu)
- * Produzioaren Programazioko goi-mailako teknika
Goi-mailako zikloa (2 ordu)

SEGURTASUNA ETA INGURUMENA

- * Ingurumen-Heziketa eta Kontrolako goi-mailako teknika
Goi-mailako zikloa (2 ordu)

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- * Automatizazio eta Robotika Industrialeko goi-mailako teknika
Goi-mailako zikloa (2 ordu)
- * Telekomunikazio- eta Informatika-Sistemetako goi-mailako teknika
Goi-mailako zikloa (2 ordu)

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- * Salmenten kudeaketako eta Merkataritza Arloetako goi-mailako teknika
Goi-mailako zikloa (2 ordu)

lax, lehenbiziko aldiz, Txorierriko Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak gazteen arteko hizkuntzaren erabilera sustatzeko proiektu berri bat jarri zuen martxan. Egitasmo honek, alde batetik, euskararen erabilera eta motibazioa sustatzea du helburu eta, bestetik, parte hartze aktiboa eta ludikoa eragitea. Proiektu honek arrakasta handia izan zuen gazteen artean eta horrexegatik Mankomunitateak aurten ere, Lukie Koiu lehiaketako 2. edizioa antolatu du, Txorierriko Mankomunitatea osatzen duten herrietako gazte-gune eta gaztelekuen partaidetzaz.

Proiektua 12 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzendua dago, hau da, DBHko ikasleei. **Iazko edizioan Txorierriko 100 gaztek eman zuten izena lehiaketan**, eta aurten ere iazko kopurua mantentzea eta ahal dela gehitzea espero da. Horretarako eta gazteen interesa piztu nahian, **institutuko gazteen iritziak eta proposamenak ere hartu dira kontuan** proba desberdinak sortzeko orduan.

Izen-ematea

Gazteek eskolan zein webgunean eman behar dute izena, bikoteka. Bertan gurasoen baimena deskargatu ahal izango dute eta, hau bete ondoren, emailaz bidali beharko diete antolatzaileei edota



Txorierriko Mankomunitatean entregatu. Izen-emate epea, beraz, zabalik dago parte hartu nahi duten Txorierriko gazte-entzat, animatu eta izena eman www.lukiekoiu.com atarian!

Ezetz Lukie Koiu?

Irailetik eta urtarrilera bitartean Lukie Koiu lehiaketako 2. edizioaz gozatzeko aukera izango dute DBHko ikasle diren Txorierriko gazteek

Prozedura

Lehiaketak ginkana estiloa dauka eta hiru fasek zehaztuko dute bere ibilbidea. **Lehenbiziko faseari** iraila hasieran ekin diogu institutuko ikasleen aurrean egingadako aurkezpenekin. Izena emateko epea urriaren 19ra arte zabalik egongo da. Izena ematearekin batera lehenbiziko proba egin beharko dute gazteek: beraien burua aurkezteko (taldearen izena, adina, eskola, herria...) pare bat minutuko bideoa.

Bigarren fasean lehiakideek internet bidezko beste bost proba egin beharko dituzte. Gazteek egin behar dituzten probetan euskal kultura, ohiko akatsak, Txorierriko ondare linguistikoa eta historikoa eta bertako ohiturak jorratuko dituzte argazki, bideo zein testu idatzien bidez. Hamabostean behin proba bat argitaratuko





da webgunean eta jasotako lan guztiak ere bertan azalduko dira, sarean. Azken proban erreportaje txiki bat prestatu beharko dute lehiakideek eta hauen artean hiru bozkatuenek bost luki (puntu) gehiago jasoko dituzte. Publikoaren bozari antolatzaileena gehituko zaio eta emaitzak urtarileko lehen astean jakingo ditugu. Orduan hiru talde finalisten berri emango da.

Hirugarren fasea Finala izango da, urtarilaren 16an, Sondikako Kultur Etxean. Hona heltzen diren hiru bikoteek hainbat proba egin beharko dute eta amaieran, nola ez, saria jasoko dute. **1.200 euro banatuko dira finalean parte hartuko duten hiru bikoteen artean**, Txorierriko edozein dendatan gas-tatzeko.

Lehiaketari buruzko informazioa aurkitzeko aski da webgunean sartzea. Tuenti zein Instagramen Lukie Koiu bilatuz gero ere bertan aurkituko gaituzu, non webguneko informazioaz gain makina bat aukera dagoen lehiaketa gertutik jarraitu ahal izateko: probak ikusi, iruzkinak egin, argazkiak igo, lehiakideen artean harremanak sortu, iazko edizioko partaideen probak ikusi... Gogoan izan lehiaketan parte hartzeko www.lukiekoiu.com webgunean eman behar dela izena.



Beldur barik 2015, animatu eta parte hartu!

Beldur barik lehiaketak helburu hau du: emakumeek berdintasunik ezari nola aurre egiten dioten erakusten duten neska eta mutilen lanak aintzat hartzea eta sustatzea. Lehiaketara mota guztietako arte-adierazpenak aurkez daitezke. Horiek errespetuan, berdintasunean, askatasunean, autonomian, erantzunkidetasunean eta indarkeria sexistaren gaitzespen irmoan oinarritutako jokabideak azaldu behar dituzte. Hori da, hain zuzen ere, Beldur barik egitasmoaren jarrera.

Horrela, bada, helburua ez da norgehiagoketan ohikoa den lehia sustatzea; horren ordez, hausnarke-ta eta eraldaketa pertsonala eta kolektiboa sustatu nahi dira, eraso-en aurrean gazteek modu aktibo batean esku har dezaten, eta indarkeriarik gabeko harremanak sendo ditzagun. Horrezaz gainera, nabarmendu eta aintzatetsi egiten dira neska eta mutilek egunerokotasunean indarkeria sexistari aurre egiteko eta hori gainditzeko erabiltzen dituzten estrategiak.

Programa 12 urtetik 26 urtera bitarteko gazteei dago zuzenduta,



eta edozein genero artistiko, ideia, proiektu, performance, bideo edo musika jasotzen duten ikus-entzunezko sorkuntzak sarituko ditu, Beldur Barik egitasmoaren jarrerarekin bat egiten badute.

Lanak azaroaren 11ra arte aurkeztu ahaliko dira, beldurbarik.org webgunean dagoen formularioaren bidez. Lan guztiak aipatutako webgunean ipiniko dira ikusgai, eta bertan ere topatuko duzue sariei eta aurreko urteetako sorkuntzei buruzko informazioa. Lehiaketari edo lanei lotutako edozein zalantza izanez gero, helbide elektroniko honetara idatz dezakezue: jarrera@beldurbarik.org.

Euskal Herriko zati bat, Amerikan

BOISEKO EUSKAL JAIALDIA

Euskal diaspora Euskal Herriko zortzigarren herrialdea dala esaten da. Ez da harritzekoa, kanpoan dagozan euskaldunek pasinoz bizi dabelako euskal kulturea. Diasporak egiten dauan euskal jaialdirik handienetarikoa bat Boisen egiten da, Estatu Batuetan. Aurten 30.000 mila lagun baino gehiago batu dira bertan, eta hatako asko eta asko, txorierriarrak.

Argazkiak: Alfon Atela, Iñigo Aurrekoetxea, José Ángel Atela, Ainara Arnaiz, Jon Ander Aldekoa, Olaia Aurre eta Oihana Astobieta



Alfon, Enkarni San Juanegaz.



Eguzkiñe, Boiseko Miguel Aiarzagaz.



Gurdien (karrokanpo) erakusketa bat egin zan.

t: Gaizka Eguzkitza

Euskal Herriko aztarna pilo bat dagoz Estatu Batuetan. XIX. mendean milaka euskaldun joan ziran Ipar Amerikara batez be artzain behar egitera. Beranduago, 1900tik 1920ra bitartean, 430.000 euskaldun joan ziran Estatu Batuetara. Gehienak Kalifornia, Oregon, Idaho eta Nevada estadietan batu ziran, Estatu Batuetako ipar mendebaldean, Kanadatik gertu. Gaur egun estaduen % 80tan dago euskal etxeren bat.

Inguru horretan dago Boise, Idahoko uriburua. Bertan, 200.000 lagun bizi dira, eta hareetako 20.000 euskaldunak dira. Esate baterako, Dave Bieter alkateak Larrabetzun daukaz erroak. Eurek behar handia egiten dabe euskal kulturea bizirik mantentzeko, eta urtero egun bateko euskal jaia egiten dabe uztailaren 31n, San Inazio egunean. Gainera, bost urterik behin euskal jaialdi erraldoia egiten dabe. Eta hara milaka lagun hurbiltzen dira, estadubatuettarrak zein kanpokoak. Eta

*Biztanle-kopuruaren
%10 da euskalduna
Boisen. Esate baterako,
alkateak Larrabetzun
daukaz erroak*

euren artean baita txorierritarak be, jakina.

Boiseko lehenengo jaialdia 1987an egin zan, eta gaur egun Euzkaldunak alkarrean antolatzen dau, hango euskal etxeak, hain zuzen be. Jaialdian hainbat

ekitaldi egiten dira: kontzertuak, dantzak, herri kirolak, pilota partidak, hitzaldiak, erakusketak... Aurten Athleticek be egin dau bat ospakizunagaz eta partida bat jokatu dau bertan. Egun batzuetan zehar, Boise euskaldunon topagunea da Estatu Batuetan, etxetik milaka kilometrora. Eta han batzen dira aspaldian Estatu Batuetara joan ziranak, euren seme-alabak eta euskal kultura bizi gura daben hainbat eta hainbat lagun. Euskerea, ondo pase-tako gogoia eta giro alai nagusi dira.

Iñigo Aurrekoetxea *Gotxa* zamudioz-tarra kirolari peto-petoa da. *Gotxak* ibilbi-de ederra dauka herri kiroletan, eta horregaitik joan da aurten Boisera. "Saio batzuetan hartu neban parte, belar-zamea eta ingudea jasoten. Hareetako bat zoragarria izan zan. Hockeyan jokatzeko areto baten egin genduan eta lekua zoragarria zan. Aretoa leporaino bete zan eta jentea zorazuta ibili zan gugaz: animaten, txaloka, argazkiak egiten, autografoak eskatzen... Itzelezko giroa egon zan". Gainera, aurkezpene be bitxia izan zan. "Hizlari bategure izenak aitatzen ebazan eta kirolariok banan-banan urtetan gendun are-

Atsedunik onena, zure bigarren etxebizitzan ere bai

Delux lo egin, zoriontsu esnatu.

SUITE DELUX
MARKA EKLSIBOAK, ATSEDENERAKO

SUITE DELUX .com

DERIO | LEIOA
Derioa Berrindatu 04545137
La Alameda 40 04336516



tora, ilunpean, musika eta kearen artean. Dana oso amerikarra”.

Kirola alde batera itxita, Iñigo poz-pozik itzuli da Txorierriera, Boiseko jaialdia “itzelezko esperientzia izan dalako”. “Jente pilo bat joan ginan hemendik eta Boisen bat egin genduan hango euskaldun askogaz. Eta gehienek euskeraz egiten; harri-garria da zelan eutsi deutsien hizkuntzari”. Era berean, Iñigok azpimarratu deusku jaialdi osoan zehar egon zala giroa. “Edozein momentutan hurbiltzen jatzun baten bat bere familiaren gainean berba egiteko edo zu ezagutzeko. Itzultzea gus-tauko litxakit”.

Ospakizun bikotxa

Eguzkiñe Goikoetxeak be barriro joan gura dau Boiseko jaialdira. Loiukoak ile-apaindegi bat dauka Asuan eta aurten lehendabiziz joan da jaialdira. “Senarra

eta biok beti euki dogu jaialdira joateko grina eta aurten azkenean lortu egin dogu. Gainera ospakizun bi egin doguz bertan: batetik, senarra eta biok orain dala 25 urte ezkondu ginan San Inazio egunean; bestetik, senarrak erretiroa hartu eban martxoan eta hori be bazan ospatzeko modukoa”.

Eguzkiñek be primeran pasau dau Estatu Batuetan. “Jaialdiak benetan merezi dau, ikusi eta bizitzeko modukoa da. Hangoak irrikan dabilz kanpokoakaz berba egiteko eta hartu-emonetan jarteko. Hango euskaldunek herrimin alaia dabe eta oso hunkigarria da”. Boisez gainera, New Yorken be egon zan Eguzkiñeren taldea, eta han Brooklyn auzoko euskal etxean egon ziran. “Kasualidadez, Loiuko lagun batzukaz topo egin genduan bertan. Oso polita izan zan. Gainera erromeria ederra eskaini eben Taberna Ibiltaria eta Luhartz taldeek”.

“Boiseko batek esan euskun: Ahal badozue, etorri jaialdira barriro; zuek emoten deuskuzuen pozak ez dauka preziorik”

Horren moduko anekdota pilo bat gertatu jakoz Eguzkiñeri. “Bidean mormoi bategaz egin genduan topo, eta guregana etorri zan senarrak Athleticeen kamisetareoialako. Bera Bilbon ibilitakoa zan, eta Athleticeen inguruan hasi ginan berbetan. Beste behin Xabi Paya bertsolariaz egon ginan, berak jaialdian parte hartu ebalako. Xabi ezagutzen dogu Lau-roetako bertso-afarietara askotan etorri dalako, eta bera hurbildu zan gu agurtzerara”.

Aurten, Olaia Aurre zamudioztarra eta bere familia be joan dira Boiserara. Bere



Boiseko euskal etxeko atariko atea.



Boiseko Larrondo Gaztañaga familia.



*“Euskaldun guztiok
bizitzan behintzat
baten joan
beharko ginateke
Boiseko jaialdira”*



aitak, Angelek, senideak daukaz Kalifornian. “Nire osaba Zamudiokoa zan eta 1920an, 17 urte zituala, Estatu Batuetara joan zan”. Angel batzuetan joan da Ameriketara, baina Boiseko jaialdia ez eban ezagutzen. “1974an Elko herrian (Nevada estadian) egin zan euskal jaialdira joan nintzan eta oso polita iruditu jatan: traktoreek ikurriñak eta Estatu Batuetako bandera eroiezan, eta bertan ikusi genduzan besteak beste Iñaki Perurena harri-jasotzailea eta Jon Lopategi eta Xabier Amuriza bertsolariak”.

Angelen eritxiz, jaialdi biak dira politak, baina Boisekoa Elkokoa baino askoz handiagoa. “Jaialdia ederra da. Ekitaldiak kale handi baten egiten dira, eta han be batzen gara bisitariok. Hangoak oso pozik egozan gu euren herrian egoteagaitik. Itzelezko harrerea egin euskuen, etxean moduan sentiduten ginan. Batek esan euskun: Ahal badozue, etorri jaialdira barriro; zuek emoten deuskuzuen pozak ez dauka preziorik”.

Alfon Atela Taberna Ibiltaria musika taldekoka da eta birritan joan da Boiseko jaialdira. Bere ustez, jaialdia gero eta han-

diagoa da. “Lehen euskaldunok, hangoak edo hemengoak, edo euskal kultureagaz loturea genduanok joaten ginan, baina gaur egun ondo pasatzera joaten da gero eta amerikar gehiago. Izan be, oso giro polita dago eta amerikarrentzat be bada berezia. Esate baterako, jaialdiaren aretoan alkohola edan ahal da kaletik, eta hori Estatu Batuetan debekatuta dago. Gainera, ekitaldiak dagoz, musikea...”

Alfonen berbetan, bisitariak gehien harritzen ditua hizkuntza da. “Amerikar euskaldun gehienek euskeraz egiten dabe, euskera dotorez gainera, inolako doinu amerikar barik. Aurten Totorikaguena abizena eban Boiseko gizon bat ezagutu genduan. Bere familia Gernikakoa zan eta berak gernikar doinuari eutsi deuto. Itzela da. Nire ustez, Boiseko jaialdia bizitzeko modukoa da. Euskaldun guztiok bizitzan behintzat baten joan beharko ginateke hara”.

Consulting Sondaika s.l.

Sabin Askolizaga
Aseguru agentzia
Allianz
609 475 746

Mitxine, 6 beheko
48150 Sondaika-Bizkaia

T.: 94 453 18 07
Faxen: 94 453 60 27

Lzpilen
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA

Sabino Arana, 3. lorja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - lzpilen@gmail.com

IRATXO
gozotegia

tarta pertsonalizatuak
trufak
belak
pastelak
pastak

Mikel Zurutu, 2 - 5. lorja - Sondaika, 48150 - 94 665 89 19

“Euskara erabiltzeak estres linguistikoa ekartzen digu askotan; gutxiagotu daiteke”

LARRAITZ MEDINABEITIA | Emun aholkularitza taldeko teknikariak

Tximintx Derioko euskara elkarteak TELP tailerra antolatu du irailean. Tailer horretan hainbat baliabide eskaini dira egoera batzuetan euskaraz aritzeak ekar dezakeen deserosotasunari aurre egiteko. Era berean, emozioak kudeatzeko tresnak eman zaizkie hiztunei, eta portaera asertiboa praktikan ipintzera animatu zaie. Tailerra Larraitz Medinabeitiak, Emun aholkularitza taldeko teknikariak, zuzendu du.

t: Itxaso Marina / a: Emun

Bitxia da pentsatzea pertsona bat deseroso senti daitekeela bere hizkuntzaz hitz egiten...

Gure hizkuntza-portaera egunerokotasunean behatzen hasten bagara, jabetuko gara gutxiengoaren hizkuntzetako hiztunok hainbat egoeratan deserosotasun ugari bizi ohi ditugula. Esaterako, ezezagunekin zein hizkuntza erabili zalantzatan izaten gara; solaskideak *eh?* esaten badigu, gaztelaniara jotzen dugu berehala; euskara ikasten dabilenarekin gaztelaniaz egiten dugu askotan, berak eskatu gabe, asko kostatzen zaiola erabaki dugulako... Euskara erabiltzeak ahalegin handia eskatzen digu askotan eta horrek nekea sortzen digu, estres linguistikoa.

Inertziak gaztelaniara garamatza. Gaizki hezitakoa naiz, dendan, banketxean... lehenengo hitza euskaraz esaten badut?

Ez horixe. Oso hizkuntza-portaera egokia da, noan lekura noala, lehen hitza euskaraz egitea. Horrekin ez diot inori kalterik egingo, eta solaskideari argi utziko diot nik euskaraz badakidala, eta elkarrizketa hori euskaraz oso gustura egingo nukeela. Gure solaskidea gu bezain argia dela pentsatu behar dugu, eta ulertzen ez badu, galdetuko digula. Konturatu behar gara gure portaera ingu-

rukoengandik ikasi dugula. Beraz, ohartu gabe egiten ditugun portaerak (lehenengo hitza gaztelaniaz) identifikatu behar ditugu, desikasi eta portaera berriak ikasi (lehenengo hitza euskaraz), eta hedatu.

Zergatik sentitzen naiz txarto, orduan, beste pertsonak gaztelaniaz egiteko eskatzen badit?

Euskaraz bizitzeko ezinagatik, ziur asko. Zorionez, euskaldunok badakigu gaztelaniaz eta sarritan erabiltzen dugu hartu-eman asko-

tan. Baina euskaraz bizitzeko kontzientzia badut, eskaera hori deserosoa egingo zait. Izan ere, Euskal Herrian euskara daki-gunok, linguistikoki bikoitzak izan arren, erdiak bagina bezala sentiarazten gaituzte.

Lagunak gure artean gaztelaniaz egiteko esan dit, berak euskaraz ez dakielako. Gaztelania hutsean egiten dugu beti. Tranpa da hori?

Bai! Luzera begira euskaraz bizi nahi badugu,

lagun hori ere konturatu behar da euskara niretzat oso garrantzitsua dela. Euskara ikasteko eta erabiltzeko beharra sortu behar diogu solaskideari.

Ikusarazi behar diogu gutxienez euskara ulertzeko gaitasuna lortuko balu, horrek aukera ugari ekarriko litzigukeela euskara erabili nahi dugunoi. Elkarrizketa elebiduna, nik euskaraz eta zuk gaztelaniaz, aukera hobe izango litzateke.

Koadrilako guztiak euskaldunak gara, baina gaur erdaldun bat etorri da gurekin. Gaztelaniaz egiten gabiltza. Errespetua da hori?

Ez. Errespetua norabide bitakoa da. Besteen lekuan jartzeko joera handia dugu, baina besteak ere jarri beharko lirateke gure lekuan. Gainera, kontuan hartu beharko dugu gauza puntuala den, edo luzera





*“Ohartu gabe egiten
ditugun portaerak
identifikatu eta desikasi
behar ditugu; berriak
ikasi eta hedatu”*

tu eta aztertu behar dugu, eta poliki-poliki euskarari gure bizitzan leku gehiago egin. Tailerrean ikasitako portaerak benetako elkarriketetan antzestu beharko ditugu hasieran, baina ekinaren ekinez ikasten eta trebatzen joango gara, eta gero eta hobeto sentituko gara. Saiakerak jolastzat hartzen baditugu, hobe, eta horrezaz gainera, ondo irteerakoa erregistratzen badugu, hurrengorako baliagarri zaizkigun baliabideak zerrendatuta izango ditugu. Azken batean, portaera berriak probatu, gauzatu eta hedatu behar ditugu gure artean.

Teoria praktikara eramatea zaila eta neketsua da askotan. Are gehiago hizkuntzaz ari bagara?

Hamaika ahalegin eta saiakera egin beharko dugu, noski, baina uste baino errazagoa da. Pixkanaka joan behar gara aldaketak eragiten, hau da, helburu errazekin hasi eta horiek lortu ahala, zailtasun handiagokoei heldu. Lortzeko errazak diren hartu-eman asko ditugu hobetzeko: erdararako joera duten solaskideekin euskaraz egitea; euskara ulertzen dutenekin; erdaraz egin digun ezezagunari euskaraz egitea... Hizkuntza-ohiturak aldatzea zailagoa da, baina egin daiteke. Frogatuta dago solaskide biek hala nahi badute, hizkuntza hiru astean mantentzen saiatuz gero, hizkuntza-ohitura aldatzen dela. Evidentzia ugari ditugu inguruan, izan ere, bikote asko dira familian, lanean, kalean... haien arteko hizkuntza aldatu dutenak.

begirakoa. Momentu jakin bateko kontua bada, pertsona horrekin gaztelaniaz egingo dut, baina horrek ez du esan nahi gainontzekoekin ere gaztelaniaz egingo dudarik. Guretzat ez da mesedegarria, gure hizkuntza isilarazten dugulako, eta bestea motibatzen eta euskalduntzeko aukera galtzen dugulako.

Aurrekoak eta beste egoera batzuk kontuan hartuta, estres linguistikoa ez da txantxa hartzekoa.

Zenbait egoeratan euskara erabiltzeko askotariko gatazka-egoerei aurre egin beharra ekartzen digu sarritan, eta horrek deserosotasuna – sumindura, frustrazioa, nekea...- eragiten digu. Sentsazio horiek zuzeneko eragina dute gure autoestimuan eta zaildu egiten dute norbanako mailan hizkuntza-normalizazioa lortzea. Horren aurrean portaera bi izaten ditugu:

euskara alde batera utzi eta gaztelania erabiltzea, ala euskarari eustea. Biek biziarazten digute deserosotasuna. Hala, lehenengoa aukeratzen dutenak sistematikoki bestearen menpe sentitzen dira; eta bigarrena aukeratzen dutenek ere deserosotasun asko bizi ohi dituzte horretara ausartzeko, besteak beste, aurreiritzi ugari dituztelako. Gizakiok estres egoeretatik ihes egiteko joera dugu eta, lasaia bizi nahian, gaztelaniara jotzen dugu oharkabea. Lekuan lekuko hizkuntza-egoerak kudeatzen ikasi beharra dugu, euskarari ahal dugun leku gehien eskainiz. Horrela hobeto biziko gara eta hiztun osasuntsuagoak eta askeagoak izango gara.

Sendagarria da?

Bai, estres linguistikoa gutxiagotu dezakegu. Horretarako, gure burua beha-

OSTEOPATIA-ZENTROA
ORDEZKO TERAPIAK
lasai
Luis M^a Asensio
Terapeuta naturopata
Larrabari, 1. lorja - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatialasai@gmail.com

LEIRE BEGOÑA
ULEAPAINDEGIA
MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32
Jarrai izaguz Facebook-en

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK
Garbi-ikusiak, orokortasun
Auzokoen komunikazioak
Mantentze garbi-ikusiak
Bulegoak eta lokalak
Olinpiar enbarkatu garbiketa
Basturak
Zahar biltzaia
Besalde Plaza, 1 - B^a Aldekoa
48160 DERIO (Bizkaia)
loreagarbi@euskalnet.net
Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93



Sondika, Altzorarekin bat

a: Itsasne Zubiri eta Fernando de Lera



Altzora Sondikako euskara elkarteak bere eguna ospatu zuen irailaren 19an. Kontatu digutenez, oso egun bizia izan zen, egun osoan izan zirelako adin guztietako lagunei zuzendutako ekitaldiak. Horrela, bada, umeentzako zein gurasoentzako jolasak egin ziren eta *Euskaraz bizi nahi dut* abestiaren *flash mob*-a ere grabatu zen. Dantza poteoaren ostean, 250 lagun batu ziren herri bazkarian eta arrastian lagun gehiagok egin zuten bat ospakizunarekin. Erromeria gauera arte luzatu zen. "Primeran pasatu genuen eta oso pozik gaude ospakizunean herritarrek zein Sondikako elkarteek hartu dutelako parte; Gorantzaileak dantza taldeak, Elaiak eta Pentagrama taldeek, gurasoen elkarteak eta Txuma Olagüe abesbatzak, batzuk baino ez aipatzearren. Giro ezin hobeia egon da eta helburua bete dugu: euskaraz ondo pasatzea eta euskara kale-atera ataratzea".







SARRERAK AURRETIK EROSTEKO:
TXARTELDEGIAN
Edozein ekintza hasi baino
ordu bat lehenago



SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)
Telefonia 94.453.64.13

ANTZERKIA



CHEFS
Producciones YLLANA-ren komedia
(estreinaldia Euskadin)
Urriak 17, 20:00
Prezioa: 10 €

ZINEA



PAN (VIAJE A NUNCA JAMAS)
(2D)
Urriak 24, 18:00
Urriak 25, 17:00 (EUSKARAZ)



LA PLAYA DE LOS AHOGADOS
(2D)
Urriak 24, 20:30
Urriak 25, 19:30



BRING HIM HOME (MARTIAN)
94' AG (2D)
Urriak 31, 18:00
Azaroak 1, 17:00



INSIDE OUT
Urriak 31, 20:30 (2D)
Azaroak 1, 19:30 (3D)

2D: 4 € 3D: 6 €

*oharra: produktorearen behar-izanen arabera programazioak aldaketak jasan ditzake

Errobotak ere ikasgeletan

t: Itxaso Marina

Oierrek hiru aste eman ditu Adelaida hiriko Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko batean, eta tarte horretan Lehen Hezkuntzako beste ikastetxe txikiago bat eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe bat ezagutzeko aukera ere eduki du. "Ikasteko beste metodologia batzuk ezagutzeko gogoia nuen eta duela urte bi Ingalaterrara joan nintzen. Oso esperientzia ona izan zen eta hura errepikatzen animatu naiz aurten. Nik abuztuan ditut oporrak eta Australian, negua denez, klasean egon dira". Australiako gobernuak Hezkuntza Sailarekin harremanetan ipini eta hara joan da Oier.

"Topatu nuen lehenengo berezitasuna klaseak binakatuta zeudela izan zen", kontatu digu gazteak. Binakatuta? "Bai, lehenengo eta bigarren mailak elkarrekin, bigarrena eta hirugarrena, hirugarrena eta laugarrena... Bigarren mailako ikasle bat bere ikaskideak baino aurreratuago badago, esate baterako, 2-3. mailan ipintzen dute; eta zailtasunak baditu, 1-2. mailan. Horrela lortzen dute arreta askoz pertsonalizatuagoa izatea". Ez da bera egondako ikastetxean topatutako berezitasun bakarra. "Ikasgelek ez dute aterik. Klasean zaudela beste gelakoak egiten ari direna ikus dezakezu. Errespetua sustatzeko egiten dute, izan ere, besteak ez molestatzeko, zarata gutxi egin behar da". Tamaina ezberdinetako mahaiak ere badituzte, lurraren arrasekoak, ertainak eta altuak, baita gela komun bat ere. Irakasleak lana bidaltzen die eta ikasleek eurek erabakitzen dute non egin, lurrean etzanda, zutik, gela komunean beste mailako ikasleekin batera... "Izan ere, euren ustez, ikaslea eroso sentitzen ez bada, kontzentrazioa galtzen du. Eman dezake apur bat kaotikoa dela, baina egia esan, oso ondo kontrolatuta dago".

Oierren esanetan, teknologia berriak eta robotikoa ohikoak dira hango eskoletan. "Txikiekin, adibidez, Sphero errobotak erabiltzen dute matematika lantzeko. Ariketa bat hau izan daiteke: umeek iPad-ean konfiguratu behar dute errobotak, denbora-tarte jakin batean distantzia bat egin dezan, gorpilak zenbat buelta eman-go dituen ere kalkulatu ahal dute... Ume-



Ikasturtea hasi berri da eta Oier Australian ezagututako ikaskuntza metodologiak barneratzen dabil, horiek lanean ezartzeko. Derioztarra Haur-hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako irakaslea da eta eskola-laguntza ematen du Arinka ikastegian. Hamaika ideia ekarri ditu Ozeaniako herrietik.

ei asko gustatzen zaie eta oso erabilgarria da, ariketa horiek egiteko matematika formulak erabiltzen direlako. Nagusiagoek, beren aldetik, beso robotikoekin egiten dute lan. Horiek konfiguratu ditzakete, esate baterako haien kontra artzain-jokora jolasteko. Hiru dimentsioko inprimagailuak ere erabiltzen dituzte, errobotak osatuko dituzten aleak egiteko".

*Teknologia berriak
eta robotikoa
ohikoak dira Australiako
eskola publikoetan*

Motibazioa, giltzarria

Ulermena eta idazmena lantzeko, *story start*-ak erabiltzen dituzte. "Legoko fitxekin istorio bat irudikatu behar dute, deskribatu, idatzi gero... Badago ordenagailurako software bat; argazkiak sartu eta komiki antzeko bat egin dezakete". iPad ere ikasteko tresnatzat dute hango umeek, eta ohikoa da eskuan hura dutela eskolan zein kalean ikustea. "Besteak beste, Natura eta Historia lantzeko erabiltzen dute. Irakasleak gai bat ipini eta informazioa webgune batean begiratzeko esaten die, eta horrekin lan bat osatu. Autonomoak izatea da helburua".

Aipatutako metodologietako batzuek inguruko ikastetxe batzuetan ezartzen hasi dira, baina apurka-apurka.



*"Ikaslea askoz
motibatuago dago
eta praktikan ikusten
du zer ikasten
ari diren"*

Oierrek ezinbestekotzat jotzen du horiek erabiltzea. "Alde batetik, ikasleak askoz motibatuago egongo direlako; eta bestetik, praktikan ikusten dutelako zer ikasten ari diren. Eskoletan ordenagailuak sartu dira, arbela digitalak... baina azalean gelditzen bagara... bada, ez dago motibaziorik". Oierrek berak robotikaren alde egiten du bere klasean, eta momentu honetan *Sphero* erroberta ondo erabiltzen ikasten dabil. Ikastegiko lehenengo egunean sorpresa txiki bat prestatu zien ikasleei. "Liburuak atera eta testu bat irakurri behar genuela esan nien. Aurpegi luzeak baino ez zeuden ikasgelan. Jo, lehenengo eguna da-eta! Lego fitxak ikusi zituztenean, aldatu egin zitzaizen aurpegia".

Jakin-mina mugagabea duela dio, eta Txina edo Kanadara joatea gustatuko litzaiokeela, bertako ikaskuntza-programetan parte hartzeko. "Zenbat eta metodologia gehiago ikasi, askoz aberasgarriagoa irakasleentzat". Era berean, edozein irakasle ipini daiteke berarekin kontaktuan, ikasitako metodologietan interesa izanez gero, edo Australiara zein Inglaterrara, hango ikaskuntza-sistema ezagutzera, joan nahi badu.

TXORIERRIKO ANTZERKI ESKOLA
2015
Derioko Kultur Birikan

**Bi orduko
saioa astean
behin**

**Hamasei
urtetatik
gorakoentzat**

Izena emateko epea
irailaren 30era arte

**Apuntatu
zaitez!!**

Irakaslea:
Josu Camara

Zure herriko euskara elkarteak
txorierri.antzerkia@gmail.com
edo 688693655 telefonoan

txorierri
antzerkia

“Athleticen jokatzeko ametsa bete egin ahal izan dut”

t/a: Gaizka Eguzkitza

Ekainean baja eman zizuten Athletice. Atsekabea pasatu zaizu?

Bai, apurka-apurka barneratzen nabil, senide eta lagunaren laguntzarekin. Egia da oraindik ere kostatzen zaidala nire burua taldetik kanpo ikustea eta taldekide ohiak telebistan ikustea. Askotan gogoratzen ditut, baina tira, aurrera jarraitu behar dut.

Zer izan zen txarrena: kalera joatea ala horretarako argudiatu zutena?

Ez diot kontu horri buelta handirik eman nahi. Ulertzen dut 31 urte ditudala eta nahi eta nahi ez, taldea uzteko eguna noizbait etorri behar zela. Iaz sarritan jokatu nuen, eta horregatik ez dut ulertzen klubak hartu duen erabakia; are gutxiago niri ilusiorik eza leporatzea. Taldea uzteko eguna nik nahiko nukeen baino lehenago etorri da, baina onartu behar da. Dena den, hitz politak baino ez ditut klubarentzat. Athletici esker nire ametsa bete nuen, eta eskerrak eman behar dizkiet Athleticeko kamiseta janzteko aukera emateagatik. Sekulako momentuak bizi izan ditut bertan eta onena opa diot taldeari.

Eta orain zer? Futbola utziko duzu betiko? Ez duzu jokatzeko grinarik?

Aspalditik, 14 urte nituenetik, nabil astebururo-astebururo jokatzeko futbolean eta ia arratsalde guztietan entrenatzen. Gaur egun ez dut beste talde batean jokatu nahi.

Ametsa bete zenuela esan duzu. Zelan bizi duzue Athletic etxean?

“Nire adineko neskato batentzat pentsaezina zen Athleticen jokatzeko garai hartan, baina gaur egun hori posiblea da”

ARRATE ORUETA | Athleticen jokalaria-ohia

Arrate Orueta Athleticen emakumezkoen taldea sortu zenetik egon da talde zuri-gorrian, baina ekainean baja eman zioten, ilusiorik eza leporatuta. Arratek ez du uste arrazoi hori bidezkoa denik, baina uda pasatu eta gero hasi da erabakia barneratzen. Futbolari utzi dio, baina jarraituko du mediku lan egiten.

Izugarri gustatzen zaigu futbola, eta oso Athleticzaleak gara, noski. Txikitan neba eta aitarekin joaten nintzen San Mamesera. Garai hartan esaten nion aitari Athleticen jokatu nahi nuela. Eta berak erantzuten zidan ezin zela, Athleticek ez zuela emakumezkoen talderik. Behin, Athleticen presidenteari gutun bat idazteko esan zidan. Erantzun zidaten momentu horretan ezinezkoa zela, baina gaia aztertuko zutela. Nik banekien ezinezkoa izango zela, baina bihotzean nuen Athleticen jokatzeko nahia. Emaku-

mezekoen futbola izugarri aldatu da azken 15 urteotan. Nire adineko neskato baten-tzat pentsaezina zen Athleticen jokatzeko, baina gaur egun hori posiblea da.

Guztira 13 urte eman duzu taldean.

Onena eta txarrena?

Onena egunerokoa izan da. Han bizi nituen momentu zoragarri guztiak etortzen zaizkit burura: ligak irabaztea, partidak garrantzitsuak, Txapelaldun Liga jokatzeko aukera izatea... Momentu txarrenei dagokienez, azkar ahazten saiatzen naiz. Agian, jasandako zauri larriak izan dira txarrena.

Arantzaren bat duzu Athleticen? Kopa ez irabaztea, agian?

Ez, ez pentsa. Hala ere, oso gogorra izan zen duela bi urte Bartzelonaren kontra galdu genuen finala: penaltietan irabazi ziguten; oso txapelketa ona egin genuen, ilusio handia geneukan...





*"Txikitan gutun bat
idatzi nion Athleticen
presidenteari
emakumezkoen
talde bat sortzeko"*

Zuk hasiera-hasieratik zeneraman emakumezkoen Athleticen. Nolako bilakaera izan du Athleticek tarte honetan?

Emakumezkoen futbola izugarri hazi da azken bolada honetan, baita Athletic ere. Hasieran liga batzuk irabazi genituen, baina gaur egun lehiakortasuna askoz handiagoa da: klub batzuek kanpogan fitxatzen dute, jokari batzuk profesionalak dira... Hala ere, Athleticek maila onari eutsi dio eta espero dezagun datoren urteotan titulu gehiago irabaztea.

2002an Athletic sortu zenean oso arrakastatsua izan zen, baina gaur egun ematen du zaletasuna epeldu egin dela... Nolakoa da emakumezko-

en futbolaren egoera Bizkaian gaur egun?

Bizkaian Athletic talde pribilegiatua da, beste inork baino baliabide handiagoak dituelako: hornikuntza, medikuak... Egia da zaletasuna epeldu egin dela. Taldea sortu zenean, nobedadea zenez eta txapelketa batzuk irabazi genituen, zaletuek bat egin zuten gurekin. Gaur egun, telebista eta babesleak emakumezkoen futbolaren aldeko apustua egiten dabilta apurka-apurka eta hori oso onuragarria da. Dena dela, gehien erakartzen duena garaipenak dira, eta Athleticek berriro irabazten badu Superliga, jendea taldearen atzean ibiliko da.

**Gustatuko zitzaizukeen profesiona-
nala izatea?**

Bai, noski, baina, zoritxarrez, hori gaur egun ia ezinezkoa da. Eta horregatik neska jokariok, futbolaz aparte, ikasi edo lan egiten dugu.

Zu, esate baterako, medikua zara. Gogorra izan da medikuntza eta futbola uztartzea?

Bai. Medikuntza gogorra da, baina beste karrera batzuk ere badira gogorrak. Hala ere, Medikuntzan karrera baino, guardiak askoz gogorragoak dira. Izan ere, hilean hiruzpalau 24 orduko lan-jardunaldiak egin behar dituzu eta gero, entrenatzera lo egin barik. Baina, tira, ohi-tura hartzen duzu eta aurrera egiten duzu.

**Etokizunari begira non ikusten
duzu zure burua?**

Auskalo. Momentuz, Gurutzetako ospitalean, Errehabilitazio sailean, nabil lanean eta oso pozik nago. Niri kirola asko gustatzen zait, baita kirol-medikuntza ere, baina ez dakit zer egingo dudan.

Arrate

Arrate Orueta Olabarria Bilbon jaio zen 1984ko abuztuaren 8an. Txikitan Basaurin bizi izan zen, baina 16 urte zituela Lezamara etorri zen bizi izatera. Txorierrin 12 urte eman zuen, eta 28 urte zituela Mungiara joan zen, Laukarizera. Gaur egun bertan jarraitzen du.

Athletici dagokionez, Arrate 2002an sartu zen klub zuri-gorrian, emakumezkoen taldea sortu zen urtean, alegia. Guztira 13 denboraldi eman du Athleticen, 270 partida jokatu eta 53 gol sartu ditu.

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SANTI MAMI
ALBAILARITZA
Nerea Pedrosa Galt. 517
COOP. GANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

RPM
MAYORISTAS INFORMATICOS
ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA
Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

RUBEN
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA
Lehendakari Lantzeria plaza, 5
48170 Zamudio
94 453 14 49

t: Gaizka Eguzkitza / a: Karraderan

Lehenengo udan, Mendata herrian, Pedro Uriguen gudari zornotzarraren gorpuzkia topau zan. Uriguen Otxandiano batailoiko kidea izan zan. Vicente Larrucea haren senidea da eta bera be Zornotzakoa da, baina Larrabetzun bizi da aspalditik. Vicentek Pedroren barri emon eutsien Karraderan alkartekoei, eta eurek, Aranzadi Zientzia Alkarteagaz batera, Pedroren hilobia topau eben. "Antza danez, gudaria zaurituta heldu zan baserri batera, eta atzeko aldean frankistek hil eben. Ondoren, baserrikoek bertan lurperatu eben. Pedroren senideek baekien bertan egoala, eta urtero joaten ziran hara ekitaldi txiki bat egitera", esan deusku Ainhua Larrabe Karraderan alkarteko kideak.

Pedro adibide bat baino ez da. Ziu-rrerrik, ezkutuan ala agerian, hainbat herrian dagoz Espainiako Gerra Zibilaren aztarnak. Larrabetzun be bai, noski, eta horretarako, memoria historikoa berreskuratzeko, hain zuzen be, BHK Karraderan alkar-teak hitzarmena sinatu eban martxoan Larrabetzuko Udalagaz eta Aranzadi Zientzia Alkarteagaz. "Hitzarmenak helburu bi ditu: Larrabetzuko Gerra Zibilaren eta Frankismoaren lehen etaparen inguruko ikerketa zientifiko bat egitea, eta Burdin Hesia balioan ipintea. Horren haritik, batetik, behar zientifikoa egin gura dogu, hau da, Larrabetzun egon diran hildako eta errefuxiatu guztien zerrenda oso bat egitea eta garai hatan bizi izan ziranen testigantzak jasotzea. Eta bestetik, landa-beharra, gaur egun Larrabetzuk dituan Burdin Hesiaren aztarnak jasotzea eta sailkatzea".

Hitzarmena sinatzea ez zan gatxa izan, baina hasikera baten Karraderan alkartekoez ez ekien Larrabetzuko aztarnak benetan interesgarriak ziran ala ez. "Herrikook badakigu gure mendietan aztarna pilo bat dagozana, eta hareen barri emon geuntsan Aranzadi Zientzia Alkarteari. Eta eurek interes handia adierazo eben: Euskal Herriko herri batzuetan be badagoz aztarnak, baina Larrabetzun oso ondo kontserbau dira: galeriak, lubakiak... Euren jarrerak aurrera jarraitzen lagundu deusku".

Hitzarmenaren partaideek alkarregaz egingo dabe behar, bakotzak berean. "Udalak baliabideak emon deuskuz, esate baterako, diru-laguntza bat; eta alderdi

Historiaren zati bat, lurpetik ateratzen

Espainiako Gerra Zibilean, Bilbo babesteko hesia egin eben inguruko herri eta mendietatik. Herri horretariko bat Larrabetzu izan zan, eta horregaitik dagoz herri horretan aztarna pilo bat. BHK Karraderan kirol eta kultur alkar-tea aspaldian hasi zan ingurua ikertzen, eta martxoan hitzarmena sinatu eban Udalagaz eta Aranzadi Zientzia Alkarteagaz.





eta zinegotzi guztiek, babesa. Karraderan alkartekook landa-beharra egiten gabilz: mendira joan, aztarnak bilatu, materiala jaso.... Eta Aranzadikoek behar teknikoak egingo dabe, hau da, materiala sailkatzea. Eurek eskarmentua dabe eta aholkuak emoten deuskuez". Proiektua gitxi batzuen artean eroan dabe aurrera, baina hilabete honetan herrira zabaldu gura izan dabe, eta informazioa emoteko bilera antolatu dabe. Herriak, betiko legez, oso erantzun ona emon dau. "Guztira 80 lagun batu ginar eta guztiek adierazo eben laguntzeko jarrera. Jarraituko dogu herriagaz behar egiten, gure ustez jenteak parte hartzea funtsezkoa dalako".

Mendi lasterketea baino gehiago

Karradera alkartea ezaguna da, azken urte biotan mendi-lasterketea antolatu daualako. Baina horrezaz gainera, gaur egun beste alderdi baten egin dau lan, memoria historikoa berreskuratzeko eta Gerra Zibileko aztarnak agerian ixteko. "Hitzarmena sinatu dogunetik, alkartea zati bitan banandu da: bata jarraitzen dau lasterketea antolatzen; eta besteak hitzarmenari jagokan beharra egiten dau. Gaur egun 15 lagun gagoz mendia garbitzen: sastrakak kentzen, bunkerrak husten, makina bategaz metalak bilatzen... Guztiak gara boluntarioak, gehienak oso gazteak, eta geure denpora librean joaten gara mendira".

Boluntarioak sarritan joaten dira Bolunburu eta Basagurengo bunkerretara. Leku horreetan hasi dira beharrean, aztarnak oso agerikoak diralako, eta, ondorioz, erraza da bertan behar egitea. "Harrigarria da, baina mendian hainbat gauza to-

*"Larrabetzuko Gerra
Zibilaren inguruko
ikerketak zientifiko bat
egin eta Burdin Hesia
balioan ipini gura dogu"*

*"Gaur egungo
belaunaldiok merezi
dogu historia
ezagutzea"*

petan dozuz: zuloak, txanponak, platerak, sardina-lata bat, bala pilo bat, obus zati batzuk, granadak... Hazur batzuk be bai, baina horreen bila Aranzadikoak etorriko dira".

Datozan hilabeteotan zenbait gauza berreskuratuko dabe Karraderan alkartekoe, baina oraindino ez dakie zer egingo daben jasoten daben material guztiagaz. "Ibilpideak eta informazio-panelak mendian, museoren bat... Ez dakigu ikerketak nora eroango gaituen. Gertatu leike Larrabetzu erreferentziako herri bat izatea. Edo ez. Era batean edo bestean, hobeto ezagutuko dogu herrian zer gertatu zan, eta historiaren zati hori ez da sasi artean geldituko. Garai hatan aho asko itxi ziran eta geure beharraren bidez hitza emon gura deusegu. Gainera, gaur egungo belaunaldiok merezi dogu historia ezagutzea".

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA

94 452 1616
94 452 1624

Pol. Torrelagoiti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA

ESPEZIALITATEA:
TXAPA ETA PINTURA

t i k t a k

EGUNEKO MENUA

lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria

9€

Bestorrene 5, Behe 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

Nire Autocasion NA

**IMPORTAZIOA ETA
SALMENTA**

GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA
Mobiak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com

Jatetxea SAN ISIDRO

EUNKO OKULETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERO GOGOZINTZA APARTA

ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala

Telefonoa 94 454 07 98 Fax 94 454 14 18 Mungialde etorbidea, 25 48160 DERIO

IKAS! IKASTEGIA

Enara kalea, 10 behe
Zamudio

94 452 04 96
600 78 64 46

**Errefortzu eta erredukzio eskolak
Ingeles eskolak
Maita guztiak
Dirulaguntzak zamudioztarrentzat**

Beste ikasturte bat, euskara plazaratzen



Taldeak osatzen gabiltza eta berbalagunok laster izango dugu dena prest ikasturte berriari hasiera emateko. Ez ahaztu hainbat aukera duzuela izena emateko, izan ere herri guztietan badago talderen bat astegun guztietan eta taldeek ordutegi zabala dute.

Helburu asko ditu Berbalagun egitasmoak: euskara kalera ateratzea, euskaldun berriak eta zaharrak harremanetan ipintzea, ikasten dabiltzanek euskara praktikatzeko leku bat izatea... eta lagunak euskaraz ondo pasatzea. Horretarako, eta taldeei dagokienez, aukera zabala dugu bakoitzak bere beharrianetara eta gogoetara ondoen egokitzen den taldea aukeratu ahal izateko, hala nola kirola egiteko taldeak, ibiltzera joateko taldeak eta kafea hartzeko taldeak. Gainera, izena ematea seme-alabekin ere egin daiteke, eta beste guraso batzuekin denbora libre euskaraz disfrutatu. Era berean, ikasturtean zehar Txorierri mailan antolatzen diren ekintzetan ere har daiteke parte: erakusketak ikustera museora joatea, gastronomia ikastaroak eta kirol ikas-

*Herri guztietan
dago talderen bat
eta ordutegi
zabala dute*

taroak, batzuk aipatzearen. Eta proposamenaren bat edukiz gero, hura ere lasai askoz bota dezakezue, ahaleginduko garelako ekintza antolatzen.

Txorierri girotzeko ez ezik, Berbalagun egitasmoak hainbat helburu betetzeko ere balio du: euskarari beldurra galtzeko, euskaldunen sarea handitzeko, jende berria ezagutzeko, euskara plazaratzeko... Izan ere, abantailak baino ez ditu berbalaguna izateak. Baina ikasturte berriari buruan erronkak ditugula ere helduko diogu. Hala, ezinbestekotzat jotzen dugu egitasmora euskaldun zahar edo euskara ondo dakien lagun gehiago hurbiltzea, euren laguntza oso garrantzitsua

**berba
lagun**

INFORMAZIOA:
Telefonoa:
 635 75 35 95
E-mail:
 txorierri.berbalaguna@gmail.com
Bloga:
 www.aikor.com/txokoa/berbalagun
Antolatzaileak:
 TOTOAN TEEF
 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea

delako ikasten dabiltzanentzat eta euskaldun berrientzat. Talde berriak ere sortu nahi ditugu, batez ere Loiu, eta daudenak sendotu.

Datozen ekintzak

Eta dinamikan sartzeko hasteko, ekintza bi edukiko ditugu urrian. Alde batetik, urriaren 18an Larrabetzura joango gara, inguruan dauden Gerra Zibilaren aztarnak ezagutzera. Bisita gidatua izango da eta Sabin Arana herriko historiazaleak zuzenduko du. Goizeko 10etan plazatik aterako gara eta handik Bulunburu ingurura eta Sarrikola auzora abiatuko dira.

Bestetik, urriaren 22an, Bilboko Arte Ederren Museora joango gara "Hormako mezuak" erakusketa ikustera. Erakusketa horretan Museoaren antzinako kartelen fondoa ipiniko da ikusgai. Berrehun lan baino gehiago dira, 1886. urtetik 1975. urtera bitartekoak, eta hainbat gairi buruzkoak: turismoa, zezenketak, kirola, merkataritza, azkoak... Txanda bi egingo ditugu, bata goizeko 10etan, eta bestea goizeko 10:15ean.

Izan zaitez protagonista



egizu Txorierri EUSKALDUNA!

*Euskara zure eguneroko hizkuntza bada, lagundu "euskaldun gehiago sortzen",
eta oraindik euskaraz berba egitea kostatzen bazaizu, zatoz gurekin!*

IZENA EMATEKO:

Telf: **635.75.35.95** eposta: **txorierri.berbalaguna@gmail.com**

AEK: 94.454.3967 Udal euskaltegia: 94.454.0062 Mankomunitatea: 94.454.0350

Laguntzaileak:



Antolatzailea:



Babesleak:



Baserrietako ekoizpenetatik onena, plazara beste behin Larrabetzun

t/a: Gurpide

Urteroko lege, urriaren hirugarren asteburuan Larrabetzuko baserritarrek plaza kolorez, usainez eta zaporez bete dabe, hamazazpigarrenez egiten dan azokan. Gurpide Elkarteak antolatuta Larrabetzuko Udalaren eta Jata Ondo LGEn laguntzagaz, aurtengo ekitaldian 18 baserri euren eskaintza zabala plazaratuko dabe: txakolina, gaztai mota ezberdinak, barazkiak eta frutak, arrautzak, barraskiloak, pastea, ogia eta opilak, eztia, landarak, egurgintza... Urriaren 18an, domekaz, goizeko 11:00etatik 15:00ak arte produktu guzti horreek eza-gutu, probau eta erosteko aukera aparta

egongo da. Herriko trikitilariak eta talogileak, beste behin, eguna girotuko dabe.

Aurten, ganera, Gurpidek azoka aprobetxau gura dau herritarrei aurkezteko Larrabetzun agroekologia eta elikadura burujabetza lantzeko prestaten dabilen proiektua. Izan be, gaion inguruan ekimen ezberdinak indartu dira Larrabetzun: eskolako jantokia eta konpostajearen proiektua dira adibide nagusiak. Aldi berean, azkenengo urteetan gazte asko hurbildu dira herrira baserritik bizitzeko asmoagaz, baina arazo handi batekin topau dira: lurra lortzeko zailtasuna. Larrabetzun nekazaritzarako proposa dan lur asko erabilera barik dagoala jakitun, Gurpideren asmoa da lurrak itxi edo

Agroekologia eta elikadura burujabetza lantzeko prestaten dabiltzan proiektua be aurkeztuko dabe

ta alokatzeko interesa daukien lurjaubeak eta lur horreek erabilteko interesa daukien gazteak bitartekaritza lanak egitea. Osagai guzti horreekaz, lurragaz, jantokiagaz eta konpostajeagaz, proiektu integrala osatu gura dau Gurpidek, herri-tarren parte hartzea bilatuta.

Jakoba Errekondoren liburua eta solasaldia

Larrabetzun urria nekazaritzagaz lotutako hilabetea izan ohi denez, hilaren 6rako ekitaldi berezia antolatu nahi izan dau elkarteak, Jakoba Errekondo irrati esatari famatuaren liburu aurkezpena lotuz. Errekondo aditua da ortugintzan eta lorezaintzan, eredu ekologikoari jagokonez bereziki. Hortaz, urriaren 6an beragaz aurrez aurre solastatzeko aukera aparta izango da Angulerin arratsaldeko 7atik aurrera. Azkenik, hilaren 13an, mahaingurua egingo da eta bertan herriko baserritarrek hartuko dabe parte.



HABAGITEGIA
URDAITEGIA
IMAZ

MUNDIALDE ETORBIDEA 2
TELFOA: 94 454 10 75

DERIO

Eskerririk asko
etortzeagaitik


KAFETEGIA
IMAZI
JATETxea

Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56

MARMOLGINTZA
GOYO

SUKALDE-GAINEKOAK OBRAK HILERRIAK

Ugaldeguren 1 ind. 18-B nabea
48160 Derio, Bizkaia
T.: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63



Mikel Zarateren *Bizipenen bultzadaz*

t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

Egun on edo kaixo
ikasturteari
abiatzerakoan
kontuen kontari

Ipuin kontalariari, ahal bada, ipuin barriak eskatzen jakoz, eta ezin bada, lehengoak, baina beti polito kontatuak.

Ni neu Guggenheimeko txakur lora-tua sentitzen naz batzuetan eta baserriko txakur beste batzuetan ze, ahausi eta ahausi dihardut euskararen etxeko atarian, ea barrukoak itzartu eta jagiten di-ran.

Kontua da, 2015eko irailaren 4an Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekan izan nazala. Sartu eta Mikel Zarateren *Bizipenen Bultzadaz* liburua eskatu deusat bertako beharginari; BO2848 zenbakiz katalogatutako alea ekarri deust, LZk 1980an argitaratua. Plaza Barrira emoten dauan ezkerreko leihoko argiz hasi dot irakurket-a. Zazpigarren orrian eskaintza: "Jose

Migel Zarateri, nire aitari -hiru urte baino gehiago kartzelan egonari- eta Julia Lejarragari, nire amari". Gero, 9. orrialdean Bitoriano Gandiagaren testu gogoangarria dator; handik aurrera, baina, orriak alkarri lotuta topatu ditut, hau da, inork 35 urtean irakurri barik. Halandaze, cutterra eskatuz ebagi egin dodaz orriak banan banan, era horretara irakurri ahal izateko.

Gertaerak zurtz eginda itxi nau ze, bibliotekako arduradunak halako liburu asko dirala apaletan esan deust.

Euskaldunon artean herritar asko da uste dauana euskara kulturako atal bat dala, beste atal batzuen artean. Baina hizkuntza ez da kultura baten zatia, ezpada ze, kulturaren beraren bide, adierazpide eta tresna. Tresna hau bakardadean be-inogaz berbaz ez gagozanean- derrigor behar dogu pentsamenduetarako.

Beraz, euskaraz irakurtzea -kasurako Mikelen *Bizipenen Bultzadaz*- guztiz garrantzitsua da euskal kulturari bizi gura badogu.

LARRABETZU
☎ 94 455 81 97
LOROÑO BEHEKOA
(BIZKAIA)

Pelukeria Estetika
94 455 81 44
Argüen 2, behe Larrabetzu-Bizkaia

Tel./faxa: 94 452 06 64
Torrelarragolti ind. P-7
48170 Zamudio (BIZKAIA)

Restaurante JANA -JATETXEA

Eguneko menuak
Menu bereziak
Jaunartzeak, bataioak eta ezkontzak

SARRIKOLA OGITEGIA

Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta

Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84



Oilasko tandoori erara

Osagaiak:

- Oilasko-bularkia bat
- Oregano, berakatz eta kipula apur bat
- Jengibre apur bat
- Piperrauts, kanela-, kumino- eta kurkuma-hauts apur bat
- 300 ml jogurt
- Iltze-belar apur bat
- Hiru limoi

Prestetako errea:

Espeziak katilu baten ipini eta nahastatu doguz. Guk espezia horreek auke-

ratu doguz, baina zuk gura ez dozuzanak kendu ahal dozuz eta beste batzuk ipini. Osteana, jogurta eta limoi-ura gehituko doguz. Dana ondo nahastuko dogu, harik eta ore homogeneo bat lortzen dogun arte.

Oilaskoa zatitan ebagi eta orean marinatu dogu. Hozkailuan 30 minutu inguru eukiko dogu. Osteana, labarako erretitu baten ipini, eta bertan 15-20 minutu izango dogu, 200 gradutan. Oilaskoa pita ogiaz edo arrozaz jan daikugu.

Etxeko sukaldaritza

Fruta-brotxetak

t: Maite Lekerika

Osagaiak:

- Fruta zatiak: melokotoia, anana, abrikota, paraguaioa, banana, sagarra, laranja, kiwi...
- Izozkia edo jogurta
- Gurin apur bat

Prestetako errea:

Gure gustuko frutak hartu eta, garbitu ostean, zatitan ebagiko doguz. Zatiak buruntzian ipiniko doguz, koloreakaz jolastuz. Zartagin baten gurin apur bat ipiniko dogu eta brotxetak arin-arin erreko doguz. Gura izanez gero, mahaira izozki edo jogurt batek lagunduta atera ahal doguz brotxetak.



LEANDRO LANDETA

HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel: 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

TXORIERRI MARMOLDEGIA

Sukalde eta bainugeletako harriak
Patxadak • Atariak • Hilerriak

Torrelarragoiti ind., 7 B.P. • 2. nabera
48170 Zamudio (Bizkaia)
T./F.: 94 608 01 41-2

ASADOR FUENTENE berria
"lur eta itsasoak baterria"

Gosariak
Afariak
Enpresa-bazkariak
Ekitaldiak
Jantoki pribatuak

ESPEZIALITATEA:
Okela eta arraina txingarretan erreta

LEKUNBI-AUZOA 26
ZAMUDIO (BIZKAIA)
☎ 94 452 23 79
www.asadorfuentene.com

GAMINIZ
JATETXEA

Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio • Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" W

www.gaminiz.com



Zer irakurri?

Errusiar diskoteka

Txerra Rodríguez (Lituraturia)

Idazlea: Wladimir Kaminer
Itzulpena: Maria Jose Kerexeta
Argitaletxea: Pasazaite
Edizio urtea: 2015

Batzuek diote euskarazko literatur lan onenak itzulpenak direla. Nik ez dakit hala den, baina badakit azken urteotan itzulpen lan askorekin gozamen ederra hartu izan dudala. Eta horietako bat ekarri nahiko nuke hona: *Errusiar diskoteka*. (Bide batez, Pasazaite argitaletxe bikainaren beste lan batzuk ere gomendatuko nituzke).

Berlinera joandako jatorri juduko etorkin errusiar baten pasadizoek osatzen dute liburua. Prenzlauer Berg auzoa du erdigune narrazioak: ekialdeko Berlineko auzoa, murrua erori ondoren, etorkinen,

okupen eta bestelako bilgune bihurtu zena. Eta murrua erori osteko sasoiaren garatu egiten da: 90eko hamarkadaren hasieran, hain zuzen ere.

Liburua autobiografikoa ei da, baina fikzionatuta. Eta, gainera, egileak bere esperientziak ez ezik, bere inguruko esperientziak ere kontatzen ditu. Pasadizo erdi-pikareskoak dira gehienak, legez kanpoko eta lege barruko etorkinak protagonista dituztenak. Eguneroko bizitzatik ateratako pasadizoak dira nagusi: esate baterako, janari lasterreko taberna batean turkiarren plantak egiten dituzten bulgariarrak (eta haiei gertatutakoak, jakina).

Ipuin laburrak dira liburukoak, bizpahiru orritakoak, biziak eta arinak (lehen begiratuan). Umorez blai, ironikoa sarritan, beltza beste batzuetan, paradoxikoa ia beti. Irribarre ahoan irakurtzeko moduko liburua da, gaur-gaurkoa. Zer



pentsatua ematen du, baina, batez ere, barre eta irribarre sano potoloak.

Errusiar batek idatzi du liburua, esan bezala. Hala da, eta balio du apur bat ekialdeko herrietako bizitza zelakoa zen ikusteko komunistak agintean zeudenean. Baina Errusiako egoerari buruz informazio zehatza jakin gura baduzu, irakurle, ez galdu Ereinek eta Igelak argitara emandako Serguei Dolavtov-en *Maleta*.

HORTZ KLINIKA

Idoia Zubietta

Osuun-zentrua & Hortz-entzuka
HORTZ INPLANTEAK - ORTODONTZIA ESTETIKOA
DENTURAK ZIN BELURAK

Dr. Arditas kalea, 11 - 1. etb. • 48011 BILBO • Telefonoa: 94 441 63 23
Urbet plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 452 13 70

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

TALLERES JUAN ANDRES

AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrelarragotz ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Erakusketak

Derio

- > "Janzerak Bizkaiko dantzetan". Urriaren 3ra arte, Kultur Birikan. Lainomendi dantza taldearen eta Bizkaiko Dantzarien Biltzarraren eskutik.
- > "Derioko azken emakume baserritarak". Urriaren 9tik azaroaren 12ra arte, Kultur Birikan.

Hitzaldiak

Larrabetzu

- > Literaturaz berbetan: Kepa Altonagaren *Back to Leizarraga*. Urriaren 15ean, 19:00etan, Anguleri Kultur Etxean. Arrekilik eta Udalak antolatuta.



Irteerak

Txorierri

- > Kilometroak. Urriaren 4an, Usurbilen.
- > Nafarroa Oinez. Urriaren 18an, Elizondon. Izena ematea: urriaren 13ra arte.

Lezama

- > Bidasoako kontrabandisten ibilbidea. Urriaren 9tik (16:30ean, Herriko plazan) 11ra. Gailur mendi taldeak antolatuta.
- > Ermua mendia (Gorliz). Urriaren 18an, 08:30ean, eskolan. Gailur mendi taldeak antolatuta.
- > Orkatzategi (Oñati). Urriaren 25ean, 08:30ean, Herriko plazan.

Musika

Larrabetzu

- > Iker Laurobaren kontzertua. Urriaren 25ean, 18:30ean, Hori Bai gaztetxean.

Bestelakoak

Derio

- > Emakume baserritarrek elkartzea. Urriaren 15ean, 18:00etan.
- > Tokiko agenda 21. Urriaren 21ean, 19:30ean, Kultur Birikan.



Jaiak

Derio

- > Nagusien Nazioarteko Eguna. Urriaren 14an, 19:00etan, Nagusien Etxean.

HARATEGIA
ALBERTO

Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

Alaia

fruta-denda

Etxez etxeko zerbitzua
Bertoko produktua

Telleri, 5
48170 Zamudio
94 455 05 81

ASADOR
ARAMENDI

EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEAK

Arteaga auzoa, 119
Tfnua: 94 452 11 58
ZAMUDIO

ama
taberna

Leizaola plaza, 7 - behe (ZAMUDIO)
94 655 93 69

AmAr
ileapaindegia

Astearte-ostiralea:
9:00-19:00
Laburuntza:
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 behe
Zamudio
94 4520419

elekma

URRATZEN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRAK
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TOSAK

Isahenengo markak • Preziarri onak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Txarri etorbidea, 25/3 N • 48180 Iruia
T: 944 539 232
www.elekma.es

TURREGOITI
JATETXEA

Lauroeta etorbidea, 27
48180 Lolu-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteturregoitil.com

GALAISA

Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Sabino Arana 1-3. SONDIA

ZELAN?

POSTAZ:

Aikor!lagun fitxa(*) bete eta bidali:
Aresti, 2 behea - 48170 - Zamudio

E-POSTAZ:

aikortxori@aikor.com helbidera

TELEFONOZ:

94 452 34 47
688 86 41 35

AHOZ:

Zure herriko euskara
elkarteko kideren bati esan

(*) Fitxa aldizkarian bertan eta
erakundeetan, liburategietan,
komertzioetan... utziko ditugun
diptikoetan topatuko duzue.



Egin zaitez Aikor!lagun

Etxe bat, lagun bat



Egin zaitez Aikor!lagun



Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____

e-posta: _____

IBAN+Bankuko zenbakiak: _____

Urteko kuota: _____

Aldizkaria jasotzen duzu? _____

Sinadura _____

30 euro _____ Beste bat _____

Orri hau helbide honetara bidali:

Aikor! Aldizkaria

Aresti kalea 2, behea - 48170 - Zamudio



15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordeko dira. Fitxategiaren erantzulea TOTAN TXORIERRIKO ELUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuak kudeatzeko dituen erantzukizuna bere gain hartzen du. Dena dela, edozein momentutan datuok eskuratu, baliogabetu eta zuzendu ahaliko dituzu. Horetarako, helbide honetara jo beharko duzu: ARESTI KALEA 2-BEHEA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).

Derio

ATERA PROBETXUA TXARTELARI!!

Irailean eta urrian zehar
%5eko deskontua
DANERIK PARAJE
txartelarekin
egindako erosketetan



** Deskontua indarrean, esleitutako diru partida amaitu arte eta 400€ baino gutxiagoko erosketetan.*